

EUSKARAREN ARNASGUNEAK FAGOR EDERLANEN

Ruben Beitia Sasiain

Aretxabaletan, 2007ko irailaren 30ean

1. AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA	__2
2. SARRERA	__4
3. EUSKARAREN ARNASGUNEAK?	__5
4. EUSKARAREN ARNASGUNEAK, BERAZ	__6
5. FAGOR EDERLAN, Koop.E	__9
6. ARNASGUNEAK ETA FAGOR EDERLANEKO EUSKARA PLANA	__12
6.1. Nola hasi zen arnasguneen ideia pisua hartzen	__15
7. HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEAZ /	
OINARRIZKO IDEIA BATZUK	__17
7.1. Motibazioa, Ezagutza eta Erabilera	__17
7.2. Hitzun motak	__20
7.3. Hizkuntzaren funtzioak	__21
7.4. Hizkuntza komunitatea trinkotzeaz	__24
7.4.1. Non begiratu hizkuntza komunitatea trinkotu den jakiteko?	__27
7.4.2. Hizkuntza komunitatea trinkotzeko faseen hiru planoak	__28
8. PROIEKTUAREN METODOLOGIA / HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEA FAGOR EDERLANEN	__31
8.1. Hizkuntza komunitatea trinkotzeko faseak eta etapak	__34
8.1.1. 3 fase eta 4 etapa	__36
8.1.2. Etapa bakoitzeko urtebete	__37
8.1.3. Lehenengo ahoz eta gero idatziz	__37
8.1.4. P/D/C/A	__38
8.1.5. Erabileratik Motibaziora	__39

8.2.	1.FASEA: ABIAPUNTUAREN GARRANTZIA	__39
8.3.	2. FASEA: (1.ETAPA) P/D/C/A ZIKLOAREN DESKRIBAPENA	__42
	8.3.1. Nola irudikatu behar dugu arnasgune bat?	__43
	8.3.2. P/D/C/A	__45
	8.3.3. P/D/C/A	__53
	8.3.4. P/D/C/A	__56
	8.3.5. P/D/C/A	__57
8.4.	3. FASEARI BURUZKO OHARRAK	__58
9.	ARNASGUNEEN BALORAZIOA	__61
	9.1. Arnasguneen indarguneak	__62
	9.2. Dena ez da arnasgune	__64
	9.3. Horixe ba	__64
10.	BIBLIOGRAFIA	__65
11.	ERANSKINAK	__66

2. SARRERA

Lan honetan *Euskararen arnasguneak* zer diren jasotzen da. Hala deitu diogu Fagor Ederlan enpresan bertako euskal komunitatea trinkotzeko helburuarekin garatzen ari garen proiektuari.

Txosten honen helburua bikoitza da. Alde batetik orain arte arnasguneen proiektuan batez ere intuizioari jarraituz egin dugunaren oinarri teorikoak idatziz jaso nahi izan ditugu, eta bestetik, teoria soziolinguistikoa oinarrituz proiektuan darabilgun metodologia ahalik eta modu argienean eman nahi izan dugu, uste baitugu gutxi-asko erabilgarria izan daitekeela beste erakunde edo ingurune batzuetan ere euskararen erabileran eragiteko.

Lan honek ondo bereizitako lau zati ditu.

- Lehenengo zatia lanaren sarrera da eta lehenengo 6 puntuak osatzen dute. Bertan aurkezten dira Fagor Ederlan kooperatiba eta bertako euskara plana. Lehen atal honetan esaten da baita, arnasguneen proiektua non, nola eta zergatik jarri den martxan.
- Bigarren zatia 7. puntuak osatzen du eta hizkuntza komunitatea trinkotzea kontzeptuaren inguruko teorizazioa jasotzen da bertan. Euskararen arnasguneak eta hizkuntza komunitatea lotzen dira, horretarako zenbait oinarritzko ideien aipamena eginez, hala nola, trinkotzea, hiztun motak, hizkuntza funtzioak edota hizkuntzan eragiten duten faktoreak.
- Hirugarren zatia 8. puntuak osatzen du eta bertan proiektuaren metodologia deskribatzen da. Zatik mardulena da hau, bertan azaltzen baita *Euskararen arnasguneak* proiektuan nola jardun; helburuak, faseak, eman beharreko urratsak, baliabideak, parte hartzaileak,... eta horretan guztian kontuan izan beharreko zenbait ohar ere ematen da.
- Laugarren zatia 9. puntuak osatzen du eta arnasguneen proiektuaren balorazioa egiten da bertan. Fagor Ederlaneko esperientzia izandako emaitzak, eta proiektuak dituen indarguneekin batera, kontuan izan beharreko zenbait ohar jasotzen da.

Lanaren azken zatian arnasguneetan egindako zenbait ekintzatako materiala jaso dugu eranskin gisa.

3. EUSKARAREN ARNASGUNEAK?

“ (...) Hizkuntza ahula indarberritu nahi duen erakunde, elkarte edo mugimendu orok berariaz ahalegindu behar du, hortaz, bere jendearentzako “**arnasgune**” horiek bilatzen eta mantentzen. Urrestillako Joantxok erraza dauka (gaur-gaurkoz): bere seme-alabek herriko plazara, tabernara edo frontoira jaitsi orduko (baita Azpeitira jaisten badira ere, instant batean) euskal giro sendoa (termino konparatiboetan, inon baino sendoagoa) aurkituko dute: hori da *physical breathing space, demographically concentrated space where Xish* (gurean euskara) *can be on its own turf, predominant and unharassed* (RLS, 58). Euskaraz nola esan hori?: **euskarazko arnasgunea**, demografi aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Erdaldunen begientzat “gauza arraroak” dira, edo izan litezke, arnasgune horiek. Anormalak edo atipikoak gerta litezke, habian ez daudenentzat. Bertakoentzat ordea, eta euskaldungo osoari begira, leku-eremu horiek euskarazko bizibide jatorraren oasiak-edo bihur daitezke, kulturazko autorregulazio-ahalmen handiko guneak. Gurea bezalako hizkuntza ahulek hain sarri sufritu behar izaten duten dislokazio fisikoari aurre egiteko bide bat dira, dudarik gabe, *breathing space* edo **arnasgune** horiek. (...)”

Normalkuntza-asmo fisiko horrek *ghettoak* sortzera eraman behar al gaitu? Apenas: ez da hori Fishmanen intentzioa; eta, hala izanda ere, *nekez* horrelakorik eskuratuko litzateke XXI. mendean. Euskaldunen bizimoduak erdal eraginaren pean jarraituko du **arnasguneotan**, parterik handienez: erdaldunekin harremanetan segitu beharko du (...)

Arnasguneen eta, oro har, demografiaz trinko diren euskal eremuen normalkuntza fisikoak, ezer esan nahi badu, zera esan nahi du: gutxien-gutxieneko oreka-modu bat lortzea ingurumen eta jardungune batzuetan euskara-erdaren artean, hesi-moduko bat mantentzea. Eguneroko bizibide arruntean oinarri-oinarrizkoak diren esparru bakar batzuetan bederen euskarak nagusi izaten jarraitu ahal izatea, euskaldun-jendeak bere solaskide arruntekin etxean eta auzoan, kalean eta dendan, elizan eta kirolgunean euskaraz jardutea, leku horietan “berez” hala egin ohi delako. Eta horren bidez, jakina, euskarak herri-jakintzaren eta kultur ondarearen funtsezko osagai batzuen adierazpide, ikur-sinbolo eta bidelagun izaten jarraitu ahal izatea.

Esan beharrik ez dagoena esaten ari garela dirudi: bizi izateko airea behar den bezala, bere arnasguneak behar dituela hizkuntza orok belaunez belaun, era normal-arruntean, transmitituko bada. Zenbat eta arnasgune hori zabalagoa izan espazioz, eta erabileraz aberatsagoa, hainbat eta hobe. Indar eta botere desberdineko *language-in-culture* direlakoak elkarrekin tratatzen direnean, dotore esateko elkarrekin *interaktuatzen* dutenean, gertatzen da *LS, Language Shift* edo mintzaldatzea. Elkar-tratatze horren ondorioz indartsuenak dislokatu egiten du ahulena, bai fisikoki eta bai demografia aldetik.” (Zalbide, M eta Erize, X 2007)

4. EUSKARAREN ARNASGUNEAK, BERAZ

“Euskara planak garatzen dihardugun enpresa eta erakundeetan euskararen presentzia bermatzea da gure helburuetako bat, baina helburu horretatik haratago, argi dago euskara erabiltzea dela benetan lortu beharrekoa, hau da, euskara hizkuntza osagarri duen elebitasun diglosiko batetik euskara hizkuntza zentrala duen eleaniztasunera pasatzea lortu behar dugu.

Hizkuntza komunitate orok bere hizkuntza garatzeko lurraldea behar du, non hizkuntzaren funtzio komunikatibo guztiak osorik garatuko diren. Euskarak ere bere lurraldea behar du, baina lurralde hau ez da lur eremu fisiko edo geografikoa bakarrik, hizkuntzak bete beharreko gizarte-funtzioak (administrazioa, hedabideak, lan-mundua, irakaskuntza, zerbitzu publikoak, ...) ere badira.” (Emun, 2007)

Hizkuntza baten lurraldea aztertuta beraz, hizkuntzaren egoeraren berri izango dugu, beste era batera esanda, lurraldea zenbat eta zabalagoa, hizkuntzaren egoera orduan eta normalizatuagoa izango da.

Hizkuntzaren egoeraren azterketa osoa egiteko baina, hizkuntzaren lurraldea ez ezik, hizkuntza komunitatea bera ere aztertu beharra dago. Bistan da bata ez duela izaterik bestea gabe, eta bataren ezaugarrien araberakoa izango dela bestea, hala, hizkuntza komunitatea zenbat eta trinkoagoa izan, hizkuntzaren lurraldea are zabalagoa izango dela pentsatu behar da.

Mikel Zalbidek bere artikuluan biltzen dituen ideien haritik, Fagor Ederlanen ere uste dugu bertako hizkuntza komunitatea euskara nagusi izango den funtzio batzuen inguruan trinkotzea ezinbestekoa urratsa dela euskararen erabilerak gora egingo badu.

Trinkotze hori gauzatzen lagunduko digun dinamika edo ekimen argi baten beharra ikusita, *euskararen arnasguneak* deitu diogun proiektua martxan jartzea erabaki dugu.

Arnasgunearen definizioa eman behar bagenu, halaxe definituko genuke labur-labur: **Pertsona bakoitzak hartutako konpromisoen bidez hizkuntzaren funtzio batzuen inguruan hizkuntza komunitatea trinkotzeko proiektua.**

Definizioak hiru ideia batzen ditu. Hiru ideia hauek aurrerago garatuko baditugu ere, bakoitzak atzetik zer duen esango dugu motzean, definizioa hobeto barneratzen lagunduko baitugu honek.

➤ 1. idea: **Hizkuntza komunitatea trinkotu**

- Arnasguneen metodologian komunitate osoa, *erakunde osoa*, hartzen da eragin eremutzat.
- *Lehentasuna* euskal hiztun motibatueta jartzen da, beraiek baitira metodologia honen motorra.
- Metodologia hau martxan jartzeko *gutxieneko baldintzak* bi dira, batetik, elkarrekin lan egiten duten euskaldun motibatu kopuru minimoa izatea, eta bestetik, erakundeak metodologia hau aurrera eramateko babes adieraztea.
- Eragin eremua handia denez, *progresibotasuna* markatzen da. Euskal hiztun motibatuetatik abiatuz beste hiztun motei eragiteko pausoak markatzen dira.
- Komunitate osoa *gune naturaletan* banatzen da, gerora beraien arteko harremana finkatzeko.

➤ 2. idea: **Hizkuntzaren funtzio batzuen inguruan**

- Euskal hiztun motibatuak *funtzio minimo* batzuen inguruan konpromisoak hartzera bultzatzen dira.

Hizkuntzaren funtzio minimo hauek *komunikazio jarduera informalean* kokatu ditugu, ahozkoan nahiz idatzian, beti ere eremu formalean (bilerak, aurkezpenak, idatzi ofizialak,...) eragiteko ditugun aukerei mugarik jarri gabe, izan ere, muga erreala pertsona bakoitzaren borondatean baitago.

➤ 3. idea: **Pertsona bakoitzak hartutako konpromisoen bidez**

- Enpresa munduko planetan hain ohikoak diren *konpromisoak dira gure lantresna*.
- Pertsonak konpromisoak hartzera gonbidatzen dira, eta gero bilera bidez konpromiso horiei jarraipena egiten zaie. Jarraipenarekin batera konpromisoak gogorarazteko ekintzak eta formazio saioak uztartzen dira konpromisoen betetze maila ahalik eta handiena izan dadin.
- Konpromiso bidezko lanketa honen azken helburua da pertsona bakoitzak bere hizkuntza ohiturak autokontrolatzea. Autokontrol hau baina ez da berez lortzen, ikasi egin behar da.

Proiektuan parte hartzen duten pertsonak hezi egin behar dira euren hizkuntza ohitura berriak eurek goberna ditzaten, horregatik, autokontrolera iritsi aurretiko etapa batean kanpotiko kontrola (adib. teknikariarena) izango dute arnasguneetako partaideek, konpromisoak betetzeko laguntza moduan ulertu behar dena.

- Helburua pertsona euskal hiztun osoa bihurtzea da, "Txepetx"en teorian arabera (Sanchez Carrión, 1987), ibilbide kulturala eta naturala, biak egitea.

Txosten honen helburua da hau guztia ahalik eta argien agertzea, Fagor Ederlanen euskararen arnasguneak zer diren eta zer izan nahi duten, ezer baino lehen esan behar baitugu oraindik ere bidea egiten hasi berria den proiektua dela hau Fagor Ederlanen, oraintxe ari baikara proiektua garatu eta ezartzen.

Esan bezala, arnasguneena proiektua da, eta beraz, lortu beharreko helburua(k) lortzeko egin beharreko bidearen berri (metodologia, prozedura, urratsak, faseak, baliabideak, parte hartzaileak, kontuan izatekoak...) eman nahi genuke.

Arnasguneak zer diren azaltzen hasi aurretik baina, aurkeztu dezagun modu laburrean bada ere Fagor Ederlan, hau da, ezagutu dezagun apur bat hango euskal komunitatea eta euskarak bertan duen lurraldea edo bizi duen egoera.

5. FAGOR EDERLAN KOOP.E

➤ Kooperatiba

Fagor Ederlan 1963an sortutako elkarte kooperatiboa da. Gaur egun Fagor osatzen duten kooperatiben arteko bat da eta MCC (Mondragón Corporación Cooperativa) barruan dago. Fagor Ederlanek 7 produkzio lantegi ditu Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan, azken honetan dago Ederlanen egoitza zentrala.

Fagor Ederlanek automozio osagaiak fabrikatzen ditu eta automobilgintzan diharduten munduko ia fabrikatzaile guztiekin lan egiten du. Balazta, Motor, Esekidura eta Transmisio negozioen inguruan antolatuta dago eta guztira 1500 langilek lan egiten dute bertan, horietatik 1200 bazkideak dira.

Fagor Ederlan, Ederlan Taldea izeneko enpresa proiektuaren bultzatzaile nagusia da. Proiektu horren barruan daude honako partaidetzako baltzuak ere: Victorio Luzuriaga Tafalla, Victorio Luzuriaga Usurbil, Automódulos (Borja), FIT Automoción (Bergara), Fagor Ederlan Brasileira (Brasil), Fagor Ederlan Slovensko (Eslovakia) eta Recieder.

Hauei guztiei Edertek gehitu behar zaie, MCCko automozio adarreko beste enpresa batzuen lankidetzaz eratutako ikerketa zentroa. Bertan, bazkide zientifiko eta teknologiko gisa, Inasmet, Ikerlan eta Mondragon Unibertsitatea ari dira.

3.500 pertsona ari dira lanean enpresa proiektu honetan. Gaur egun, proiektu hau antolamendu global berri bat zehazten ari da, merkatura gehiago hurreratu, errendimendu industrialak handitu eta proiektua bera globalki garatzeko helburuarekin. Proiektu honen egungo erronketako bat da taldeko enpresen kooperatibizazioa.

➤ Euskara plana

Aspaldikoa da Fagor Ederlanen euskararen egoera normalizatzeko gogoak, hala, 70.hamarkadakoak dira gogo honi forma emateko martxan jarri ziren lehen esperientziak. Hamarkada hartan euskara eskolak jarri ziren martxan, baina krisi ekonomikoaren etorrerarekin bertan behera gelditu ziren.

1998an egungo Euskararen Erabilera Planaren inplementazioa jarri zen martxan.

Plangintzaren helburua hasiera hasieratik “euskaraz lan egin nahi duenari hori egiteko aukera bermatzea” izan da. Euskara planaren helburu nagusia barne harremanak euskaratzea da. Horrez gain, hornitzaile eta administrazioarekiko harremanak ere lantzen dira. Bezeroekin ez, guztiak kanpokoak dira eta.

Plangintza horizontalean hazten joan da: 1998an Bulego Orokorretan inplantatzen hasi zen, 1999ean Motorra eta Transmisioa negozioetan; 2002an Balaztan; 2003an Esekiduran eta 2005ean V.L Usurbilen. 2007an berriz, FIT Automociónen ere martxan izango da euskara plana.

Planaren hasierako dinamika Erabilera Taldeen inguruan gauzatu zen, batez ere. Erabilera Taldeen hasierako urteetatik hasita, bereziki zaindu nahi izan da planaren izaera partehartzailea.

2001ean Fagor Ederlaneko Hizkuntza Irizpideak onartu zituen zuzendaritzak. Hizkuntza Irizpideen bidez, ordura arte Euskara Planean lortutako erabilera helburuak finkatu nahi izan ziren.

Urte horretan bertan Fagor Ederlaneko euskararen adierazlea behar zela eta, euskararen erabilera adierazlea sortu zen, ordudanik, urtero Gestio Plana egiterakoan adierazle hau erabiltzen da. Gerora, ezagutzaren bilakaerari eta kanpo eta barne selekzio irizpideen betetze mailari jarraipena egiteko ere sortu dira adierazleak.

2002 urtean negozioetan Erabilera Taldeekin batera dinamika berri bati ekin genion: Negozioetako departamentu buru bakoitzak bere departamentuarentzat helburuak adostu ostean helburu horiek negozioko Gestio Planean sartzen dira eta hiruhilero negozioko koordinatzaile bakoitzak negozioko helburuen betetze mailaren deskargua egiten du negozioko zuzendaritzan.

Euskara Planaren giza baliabideei dagokienez, kooperatibako negozio bakoitzak eta Bulego Orokorrek koordinatzaile bana dute. 2002az geroztik Bulego Orokorretako koordinatzaileak bere lanaz gain koordinatzaile orokorraren lanak egiteko dedikazioa du. Negozioetako koordinatzaileek ez dute lan horretarako aparteko dedikaziorik.

2002an Fagor Taldeko “Hizkuntza Egokitzapenerako araua” sortu zen eta Fagor Ederlanen garatu ostean selekzioan eta formazioan aplikatzea erabaki zen. Arau honek postu bakoitzak duen hizkuntza eskakizuna zehazten du. Ondorioz, langileak duen euskararen ezagutza berak betetzen duen postuak duen eskakizunaren azpitik badago, langile horren formazioaren kostuaren zati bat enpresak bere gain hartzen du bere gain.

2003ko Batzar Orokorrean Kontseilu Errektoreak eta Kontseilu Sozialak Euskara Planaren aldeko diktamina egin zuten, hala, planarekiko kolektiboaren aldetik dagoen eskari eta babesaren adieraziz.

Hasiera batetik, euren borondatez parte hartu duten bolondresen osatutako Euskara Batzordea izan da Ederlaneko Euskara Planarena. Plana negozioetara hedatuz joan den neurrian behar berriei erantzun zien egitura eraginkorragoa martxan jartzeko prozesua jarri zen martxan 2004an. Hala, urte hartan bolondresen osatutako Euskara Batzordeak eta koordinatzaileek osatutako Euskara Batzorde berriak (egun Euskara Batzorde Horizontala deitzen diogunak) aldi batean elkarrekin funtzionatu zuten, egitura berria sendotuz joan zen arte.

2005ean desagertu zen lehena, eta bolondres haiek eurei zegokien negozioetako Euskara Batzordeetan hartu zuten lekua. 2005ean Balaztako eta Esekidurako Euskara Batzordeak osatu ziren, horrenbestez, batzordeak negozio guztietako planetara hedatuz.

Horretaz gain, 2005ean bertan lehendakaria eta gerentea eta Giza Baliabideetako zuzendaria partaide dituen Batzorde Eragilea sortu zen, orain arte azaldu dugun planaren egitura osatuz. Gainera, Kooperatibaren Plan Estrategikoan euskara planarentzat estrategiak definitu ziren lehenengo aldiz.

Hau da egun euskara planak duen egitura:

FOROA	KIDEAK	FUNTZIOA
Batzorde Eragilea (3 hiler)	Lehendakaria Gerentea GB zuzendaria Koordinatzaile Orokorra Teknikaria	Euskara planaren politika orokorra definitu eta jarraipen orokorra egin adierazle kritikoaren bidez.
Euskara Batzorde Horizontala (hiler)	Negoioetako koordinatzaileak Teknikaria	Ederlan mailako helburuak lantzea. Baruko eta kanpoko praktika onak zabaltzea Metodologiak bateratzea. Gaien zabalkundea egin dadin edo erabakiak har daitezen proposamenak egitea
Negoioetako Euskara Batzordea (hiler)	Negoioetako koordinatzailea Batzordeko kideak Teknikaria	Negoio mailan definitutako helburuak lantzea eta jarraipena egitea
Negoioetako koordinazio bilera (6 hiler)	Koordinatzaile Orokorra Koordinatzailea Teknikariak	Negoioetako eta Ederlaneko euskara planaren martxari jarraipena egin. Praktika onak identifikatu, oztipoak gainditzeko konpromisoak hartu edo bide berriak hausnartu, Giza Baliabideetako Batzordean edo Euskara Batzorde Horizontalean landu beharreko gaiak identifikatu.
Partaidetuekin koordinazio bilera (3 hiler)	Koordinatzaile Orokorra Koordinatzailea Teknikariak	Enpresaren euskara planari jarraipena egin eta Ederlanen laguntza/erreferentzia eman. Kooperatibak aholkularitza eman eta , hala baloratuz gero, arazo kritikoak Ederlaneko goragoko mailetara bideratu.

2007an Fagor Ederlanen hizkuntza politika zehaztu da, bertan jaso dira orain arte indarrean ziren irizpide eta arauak, eta horretarako baliabideen berri ematen da, bide batez, oraindik ere arautu gabe zeuden arloak ere lotu ditugu. Politika honek Fagor Ederlan Taldean du bere eragin esparrua.

Fagor Ederlani buruzko informazio gehiago: www.fagorederlan.es

6. ARNASGUNEAK ETA F.EDERLANEKO EUSKARA PLANA

Euskararen arnasguneak Fagor Ederlanek euskararekiko duen helburu nagusia lortzeko bidean bitarteko bat gehiago dira. Arnasguneen helburuak (Euskal hizkuntza komunitatea trinkotzea) bat egiten du Fagor Ederlaneko helburu nagusiarekin edo hau erdiesteko azpi helburuekin.

Fagor Ederlanek euskararekiko duen helburu nagusiak hauxe dio:

Fagor Ederlanek euskararen normalizazioa lortzeko hartu duen ildo estrategikoa kontuan izanda, eta erakundeko pertsonak, hizkuntza ezagutu edo ez, hizkuntza muga gainditzeko prozesuari babes orokorra ematen ari direla egiaztatuz, honako helburu hau planteatzeko baldintzak daudela kontsideratzen dugu:

Fagor Ederlanek “Euskararen normalizazio proiektua” garatzeko konpromisoa du, modu horretan, 2012an harreman sozio-enpresarialetan euskara erabili nahi duen pertsona orok hori posible egingo duen testuinguru humano eta prozedimentala izango du.

Alde kulturala alde batetara utzita, helburu hau laneko parte hartzearen apustuaren barnean kokatzen da, eta helburua lortzeak pertsonak kooperatibarekin identifikatzen lagundu behar du, eta azken finean, bere efizientzia enpresarial eta soziala hobetu.

Arnasguneen proiektuak batez ere bat egiten du helburu nagusian aipatzen diren hiru ideia nagusirekin. Lehenena da *testuinguru humanoa*, bigarrena da *testuinguru prozedimentala* eta azkena da *pertsonak kooperatibarekin identifikatzen laguntzea*.

Lehenengo ideiar dagokionez esan behar da pertsonak euskaraz lan egin dezaten prestatu nahi ditugula arnasguneetan, hau da, pertsonak trebatu nahi ditugu euskararekiko euren gaitasunean.

Bigarren ideiar dagokionez, arnasguneetan ekintza praktiko eta konpromiso zehatzak hartuta, testuinguru prozedimentala (dokumentazioa,...) aldatzeko urratsak ematen direla uste dugu.

Azkenik, arnasuneek pertsonen kooperatibarekiko identifikazioa edo identitatea areagotzen lagun dezakete, izan ere euskaldunen identitatea indartzeko balio dute arnasguneek, eta honek talde nahiz erakundearen identitatean sakontzen laguntzen du.

Goian jasotako helburu nagusia da Fagor Ederlaneko hizkuntza politikaren iparra. Ipar honetara iristeko alde batetik hizkuntza irizpideak ditugu, eta helburuak bestetik. Fagor Ederlaneko hizkuntza politikak helburu horretara iristeko beharrezko dituen politikak (arauak, baliabideak, ...) jasotzen ditu. Guztira bost dira arautzen diren esparruak:

- PERTSONEN KONTRATAZIOA, PROMOZIOA ETA EUSKARA ESKOLAK
- LANPOSTURAKO FORMAZIOA
- KOMUNIKAZIOA
- LAN TRESNAK (Aplikazio informatikoak eta makinak)
- HAZKUNDEA

Bost esparru nagusi horien baitan berriz, sei dira helburu nagusia lortzeko bidean garatu beharreko ildo nagusiak, ildo hauexek dira hain zuzen, urteko Gestio Planean jasotako ekintzen bitartez lantzen dihardugunak. Hauek dira:

- 1) Hizkuntza politikaren jarraipena egin eta betetze mailak aztertzea
- 2) Kolektiboa gaian sentsibilizatzeko ekintzak burutzea.
- 3) Euskara Normalizatzeko proiektuaren egitura hobetzea
- 4) Mandoen egitura euskalduntzea
- 5) Euskaraz lan egiten duten gune naturalak sustatzea. (Planta bakoitzean gune naturaletan euskaraz jarduteko dagoen aukera aprobe txatu eta euskaraz lan egiten den eremu bihurtzea proposatu)
- 6) Euskararen Normalizazioa Ederlan Taldera zabaltzera

Arnasguneen egitasmoak, 5. ildoaren baitan du bere lekua, hau da, euskaraz lan egiten duten gune naturalak sustatzeko beharrezko ditugun bitartekoen artean bat gehiago dira arnasguneak.

Gainerako ildoen artean, 1., 3. eta 6. ildoek planaren erakundetzeari eta proiektuaren egitura hobetzeari erantzun nahi diote. Gainerakoek, hau da, 2., 4. eta 5. ildoek hizkuntzaren ezagutza, motibazio eta erabileran eragin nahi dute. Azken hiru ildo hauek bultzatzeko azken urteotan hartutako zenbait neurri edota burutu ohi ditugun ekintza batzuk aipatuko ditugu ondoren, Ederlaneko euskara planaren dinamika apur bat ezagutu eta arnasguneen proiektua bestelako ekimen eta ekintzen artean kokatzeko.

- ❑ Euskararen ezagutzari begirako zenbait neurri edo ekintza:
 - Zeharkako lanpostuen hizkuntza egokitasuna zehaztu da
 - Zeharkako lanpostuetarako sarrera berrien hizkuntza egokitasunaren betetze mailari jarraipena egiten zaio
 - Urteroko euskararen formazio planetan mandoen euskalduntzea estrategikotzat jo da
 - Lanpostuan hizkuntza egokitasunik izan ez arren, euskara ikasteko aukera kolektibo osoak du
- ❑ Euskararen erabileran zuzen-zuzenean eragin nahi duten neurri eta ekintzak:
 - Bileretan euskaraz (ere) egiteko konpromisoak
 - Lankideen artean (euskara ikasleak barne) hartutako ahozko konpromisoak
 - Plantatako makinak eta lan tresnak euskaraz (ere) sortu edo ekarriko direla dioen eskakizuna erosceta baldintza pleguetan sartzea
- ❑ Euskararekiko pertsonen motibazioa areagotzeko burututako ekintzak. Ekintza hauetan Ederlaneko langileen ahalik eta parte hartzerik handiena bilatzen da.
 - Motibazio kanpainak (Esan bai/Di bai kanpaina,...)
 - Euskararen astea. Helburu eta izaera ezberdineko ekintzak antolatzen dira. Batetik guztiontzako ekintzak daude, euskara planean parte hartu eta jendea erakartzen duten ekintzak. Bestetik euskaldunentzakoak (euskara hutsezkoak) daude, hortaz euskal komunitatea trinkotzeko helburua dute. Azkenik planaren erdigunea osatzen dutenak motibatzekeko ekintzak daude, soziolinguistikazko formazio saioak etab.

- Euskara planari buruzko informazioa zabaltzeko ekintzak; kartelak, oharra, mezuak, euskaraz lan egiteko ditugun aukeren berri eman,...
- Komunikazioa. Kooperatibaren beraren bideak erabilita euskararen gaiari buruz hitz egitea, kontseilutxoak, negozioetako kontseilu sozialak,...

Goikoak ikusita esan daiteke hizkuntzan eragiten duten hiru faktoreak (motibazioa, ezagutza eta erabilera) ahalik eta modu eraginkorrean lantzeak (modu masibo nahiz pertsonalizatuan, hala komeni denean) hartzen duela Fagor Ederlaneko euskara planaren zati handi bat.

Arnasguneen helburua ere horixe da azken finean, motibazioa, ezagutza eta erabileraren lanketa enpresako berezko talde edo talde naturaletara ekartzea, hala, bertako euskal hiztunak hiztun oso bihurtzeko. Hiztun oso izateak esan nahi du, hizkuntzaz osoki jabetzeko egin beharreko ibilbidea bere osotasunean egin duela hiztunak, hau da, Txepetxek deskribatzen dituen “ibilbide naturala” eta “ibilbide kulturala” -aurrerago sakonduko ditugu- eginak dituela hiztunak. Arnasguneetan egin nahi duguna da beraz, hiztun bakoitzari falta duen ibilbidearen zatian laguntza ematea, hala, ahalik eta bide luzeena egin dezan, ahal bada ibilbidea bere osotasunean osatu dezan.

6.1. NOLA HASI ZEN ARNASGUNEEN IDEIA PISUA HARTZEN

Fagor Ederlanek euskararekiko duen helburuak euskaraz lan egiteko aukera bermatu nahi du, hau da, hala nahi duenak euskaraz lan egiteko behar dituen baldintzak izango dituela esaten du.

Enpresan euskara eta gaztelera, biak dira hizkuntza ofizialak. Hori kontuan izanda, euskara eta erdaren arteko oreka justuago bat lortzeko bidean eta euskarak gaztelarekiko duen menpekotasuna hausten hasteko urratsak ematen hasi behar genuela ikusita, helburu nagusian bertan jasotzen den *hizkuntza aukeraren* bidean sakondu beharra ikusten genuen; zergatik ez lanean euskaraz egin? prest al gaude lanean euskararen aldeko hautua egiteko? zergatik ez modu argi eta kontziente batean urrats hori eman?

Galdera horiekin batera baina, beste batzuk ere pilatzen zitzaizkigun bata bestearen atzetik; eta nondik hasi? nor dago prest horretarako? ba al dugu urrats hori emateko moduko baldintzarik (masa kritikoa, kontzientzia maila nahikoa, motibazioa, nahikoa ezagutza,...) betetzen duen pertsona edo gunerik? ...eta horretarako baldintza nahikorik ezean, ba al dugu baldintza horiek sortzerik? nola egingo dugu hori?

Goiko galdera batzuentzako bagenuen erantzunik, beste batzuentzat aldiz ez oso erantzun argirik, dena den, bidea egiten hasi egin behar genuela pentsatu genuen, seguruenera, aurreak erakutsiko zigun eta, atzea nola dantzatu.

Plangintzaren hamar urteko ibilbidean urrats nabarmenak eman dira euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak sortzen, emaitzak hor daude, eta hamar urtean Ederlan asko aldatu dela aitortzen dute hango langileek, aldaketa horren protagonistek. Ederlan euskaldunagoa da orain.

Hala ere, egun gauden puntutik aurrera egiteko ezinbestekoa ikusten dugu urrats kualitatiboak ematea. Behar hau atzemanda hasi ginen bertan gabiltzan teknikariok arnasguneen ideia garatzen.

Arnasguneen ideia 2006an sortu zen eta 2006 eta 2007a behar izan ditugu arnasguneek gaur duten forma hartu zezaten.

Hasierako gure zirriborroak Euskara Batzordeetan aurkeztu eta hausnartu ziren eta jada 2006an lehen proiektuak jarri genituen martxan negozio ezberdinetan. Baina konturatu ginen metodologikoki hasierako proposamen hark argitik beste edo gehiago zuela ilunetik; errealitateak erakutsi zigun ez geneukala batere argi arnasguneak zer ziren edo zer izan behar zuten, zein bilakaera izan behar zuten, ezta zein urrats eman behar ziren ere zehaztutako helburuak lortzeko, eta helburuetan ere ez gentozen beti bat.

Arnasguneen oinarri teorikoa batetik, eta proiektua garatzeko metodologia bestetik, hobeto hausnartu beharra zegoen, beraz. Ederlaneko langileak eurak (batez ere Euskara Batzordeetako kideak) proiektu honen protagonista egin eta euren inplikazioa lortu nahi bagenuen, zerbait argia, ulergarria eta egingarria garatu eta aurkeztu beharra zegoen, arnasguneetan nola jardungo genuen jarraibide ahalik eta argienak eman beharra zegoen.

2006ko gure planteamendua aldatuz joan da denborarekin, proiektu honen inguruan guk genuen hasierako ideia osatuz joan garen neurrian, hala, gaur hemen jasotzen duguna teoria eta praktikaren arteko nahasketa da.

Alderdi praktikoari dagokionez, martxan jarritako arnasguneetatik ikasitakoa (ondo egindakoak eta hobetu beharrekoak) jasotzen ditugu hemen, alderdi teorikoari dagokionez berriz, aurrera begirako jarraibidea izan nahi du lan honek, espero dezagun Ederlaneko arnasguneetan modu bateratuan jarduteko balioko diguna. Hau guztia Ederlanen euskararen normalizazioan beste urrats bat emateko izan daitekeela uste dugu. Ea ba.

7. HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEAZ / OINARRIZKO IDEIA BATZUK

Fagor Ederlaneko arnasmugak zer diren sakontzen hasi baino lehen, uste dugu beharrezkoa dela hizkuntza komunitatea trinkotzeari buruzko zenbait oinarritzko ideia hona ekartzea, hala, batetik proiektu hau bere testuinguruan kokatzeko, eta bestetik ondoren azalduko dugun Fagor Ederlaneko kasu zehatza hobeto ulertzeko.


7.1. MOTIBAZIOA, EZAGUTZA ETA ERABILERA

Txepetxek bere “Hizkuntzen teoria soziala” aurkeztean, pertsonok hizkuntzak nola ikasten ditugun azaltzen du. Prozesu edo ibilbide bat da hizkuntza bat ikasteko egiten duguna, eta bi norabide ditu, naturala eta kulturala.

Bi norabide horietan, hurrenkera ezberdinean, baina hiru faktorek eragiten dute beti; motibazioak, ezagutzak eta erabilerak. Txepetxek aipatzen du nahikotasun maila bat behar dela prozesua abian jarri eta ibilbidea bete dadin, azken finean maila hori gainditu beharra du hizkuntzak, osasuntsu biziko bada.

IBILBIDE NATURALA: erabili → jakin → maite (nahi) / **A ibilbidea**

Haurrak etxeko edo bere ingurune gertueneko hizkuntza ikasten duen modua da. Hizkuntzaren ikasketa naturala da, haurrak modu intuitiboan ikasten du etxeko hizkuntza, “pentsatu” gabe. Haurra hasieratik murgiltzen da hizkuntzaren erabileran, hau da, ez du ikasteko motibazio kontzienterik. Ikasketa hau erabileran hasten da eta haurrak zenbat eta hizkuntzaren ezagutza handiagoa lortu, hizkuntzarekiko berezko motibazioa lortzen du.




(ibilbide naturala edo A ibilbidea)

“Hizkuntza bat gizarte batean normalizatua dagoenean, gizarte horretako pertsonak edo hiztun-komunitateak hizkuntza hori erabili egiten du bere zeregin (ia) guztietarako. Erabiltzen dutelako dakite hizkuntza, eta dakiten hizkuntza horrek gauzak egiteko (normal bizitzeko) balio dietelako maite dute.” (Arruti, 2007)

IBILBIDE KULTURALA: nahi (maite) → jakin (ikasi) → erabili (egin) / **B ibilbidea**

Pertsona nagusiek hizkuntza bat ikasteko egiten duten ibilbidea da. Motibazio jakin bat (lanerako behar dutelako, beste kultura bat ikasteko interesa,...) dutelako hasten dira hizkuntza bat ikasten. Motibazio hau erabat kontzientea da, hori bai, motibazio hau handiagoa ala txikiagoa izan daiteke, horregatik, pertsona horrek ez du hizkuntza hori ikasiko bere motibazioa ikasketa prozesua martxan jartzeko nahikoa ez bada.

Hiztuna, motibaziotik hasita, ikasketaren bidez hizkuntza ezagutzen hasten da eta behin maila nahikoa lortu duenean erabiltzen hasiko da. Hiztunak, erabilita bakarrik lortuko du hizkuntza “berria” ongi ikastea, hau da, erabili ezean ezin da hizkuntza bat finkatu, zabaldu eta sakondu, erabili ezean ikasitakoa ahaztu egiten baita, eta ondorioz berau erabiltzeko motibazioa ere gutxitu egiten da.



“Hizkuntza bat gizarte batean normalizatua ez dagoenean ordea, hizkuntzaz jabetzeko prozesu naturalak (A ibilbidea) ez du modu horretara funtzionatzeko adina indarririk izaten (zenbat eta hizkuntzaren egoera ahulagoa, hizkuntzaren bizitzaren ibilbide naturala ahulagoa) eta beraz, prozesu natural hori indartzeaz gain, prozesu kulturala (B ibilbidea) ere martxan jarri eta elikatu behar izaten da hizkuntza komunitate horretan.” (Arruti, 2007)

Fagor Ederlanen ere euskararen egoera ez dago normalizatua enpresako egunerokotasunean, hau da, euskara ez da oraindik modu natural eta orokorrean erabiltzen. Egoera hori normaltzeko bertako langileen artean prozesu kulturala (B ibilbidea) nahiz prozesu naturala (A ibilbidea) indartu behar ditugu, horretarako arlo bakoitzari (ezagutza, motibazioa eta erabilera) begira hartutako neurri, helburu eta estrategietan eraginkorrak izanda.

Arnasguneen proiektu konkretura itzulita baina, zein da erabili beharreko estrategia? Hau da, proiektu honetan zein da hizkuntza komunitatea trinkotzeko egin beharreko ibilbidea, erabileratik motibaziorako, ala motibaziotik erabilerakoa?

Goian esan dugu hizkuntza bat normalizatua ez dagoenean hizkuntzaz jabetzeko prozesu naturalak (A ibilbidea) ez duela modu horretara funtzionatzeko adina indarrik izaten eta orduan, prozesu natural hori indartzeaz gain, prozesu kulturala (B ibilbidea) ere jarri behar dela martxan, eta egia da Fagor Ederlaneko kasuan ere motibaziotik abiatutako bidea indartu egin behar dugula.

Hala ere, uste dugu hizkuntza komunitatea trinkotzeko oinarria euskara dakitenengan dagoela, horregatik, arnasguneetan erabileratik motibaziorako ibilbidea landuko dugu nahiz eta proiektu honetan berebiziko garrantzia duen motibazioaren lanketak, dakitenekin eta baita ez dakitenekin ere.

Ederlanen langileen %58 zen euskalduna 2004an. Ordukoa da enpresa bere osotasunean hartuta ezagutza jakiteko egindako azken datu bilketa. Ordutik hona langileen sartu-irtena handia izan da batez ere hizkuntza egokitasunik ez duten lanpostuetan, eta datu orokorrik ez dugu eguneraturik. Lanpostuan hizkuntza egokitasuna dutenen artean, gaur egun %55ek betetzen dute hizkuntza egokitasun hau, hau da, badakigu multzo honen artean zenbatek duten eskatzen zaien maila. Pentsatzekoa da beste askok eskatzen zaien mailarik izan ez arren, euskaraz badakitela zer edo zer, gutxi ala asko.


Datorren urtean lanpostuko hizkuntza egokitasunik ez duen langileen (batez ere zuzeneko langileak dira hauek) euskara ezagutza jasotzea erabakita dago, orduan jakingo dugu zein den guztizko ezagutza gaur egun enpresan, baina bitartean, %58a erabiliko dugu erreferentzia bezala.

Uste dugu beraz, euskara dakitenen inguruan metatu behar direla indarrak, hauek indartu behar ditugu lehenik. Azken helburua euskara modu natural eta normalizatuan erabiltzea izanik, nori eskatuko diogu euskaraz egin dezan? Bistan da euskara dakitenetatik abiatu behar dugula, eurek izan beharko dute ondoren ingurukoei tira egingo dietenak.

7.2. HIZTUN MOTAK

Hizkuntzaren jabekuntzan hiztunak egin duen ibilbidearen arabera, eta hizkuntza horretan duen ezagutza mailaren arabera era bateko ala besteko hiztunak ditugu. Hauek dira:

- ❑ Ø: Erdal elebakarrak
- ❑ A: Euskara etxean edo bere ingurune gertuenean ikasi duen euskal hiztuna. Ibilbide naturala (Erabilera → Ezagutza → Motibazioa) da egin duena, eta euskara ama hizkuntza duen arren, ez du eskolan landua. Euskal hiztun ez alfabetatua edo “euskaldun zaharra” (*ikusi A ibilbidearen irudia 17.orrian*)
- ❑ B: Euskara ikasteko motibaziotik abiatuta, transmisio kulturalaren bidez euskara ikasi duen euskal hiztuna. Ibilbide kulturala (Motibazioa → Ezagutza → Erabilera) da osatu duena, hala ere, hizkuntzaren natibo baten erraztasuna falta zaio. “Euskaldun berria” (*ikusi B ibilbidearen irudia 18.orrian*)
- ❑ AB: Euskara etxean edo bere gertueneko ingurunean (ibilbide naturala) ikasi duen hiztuna da, ondoren euskara landu egin du ibilbide kulturala (Motibazioa → Ezagutza → Erabilera) osatuta. Badaki irakurtzen eta idazten, alfabetatua da. Hiztunak ez du inolako arazorik bizitzako edozein komunikazio egoeratan euskaraz aritzeko. “Hiztun osoa” da.
- ❑ BA: Eskolan, euskaltegian,... hizkuntza formalki ikasi eta erabiltzeko egindako ibilbidea (ibilbide kulturala), ibilbide naturalarekin (Erabilera → Ezagutza → Motibazioa) osatu duen hiztuna. Hizkuntza funtzio formaletarako ez ezik, funtzio naturaletan ere erabiltzeko gai den hiztuna. “Hiztun osoa” da.



(Hiztun osoa izateko egindako ibilbideak: AB eta BA)

Aurreratu dugun moduan, arnasguneen proiektuaren ardatza euskal hiztunek osatzen dute, hala ere, euskal hiztunek ez ezik, erdal hiztunek ere parte hartuko dute, eta aurrerago hitzun mota bakoitzarekin nola jokatu behar dugun zehaztuko badugu ere, azpimarratu behar duguna da proiektu honetan hitzun mota guztiak direla beharrezko. Guztiek parte hartzea garrantzitsua da beraz, proiektuaren helburuari begira batetik, eta Ederlaneko euskara plana guztion artean garatzeko modua ere badelako, bestetik.

7.3. HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK

Euskara ez da Ederlanen gutxiengoaren hizkuntza, erdia baino gehiago (%58) baita euskal hiztuna.

Hala ere euskara gutxitua da, bertako lan hizkuntza nagusia gaztelera baita. Guzti-guztia ez da euskaraz egiten edo “ezin da” euskaraz egin, (euskararen erabilera %26,3koa da Ederlanen) hau da, bertan dugun egoera da euskaraz dakiten askok ez dutela erabiltzen edo nahi izanda ere “ezin dutela” erabili. Gertatzen da baita, hainbat gauza adierazteko erdararen beharra dutela euskal hitzun askok, ez direlako euskaraz sortzeko gai, ahoz nahiz idatziz.

Gaztelera eta euskara, enpresan biak hizkuntza ofizialak izanik, biak erabiltzearen aldekoa da enpresak adostutako hizkuntza irizpide orokorra, beti ere euskara lehenetsiz. Barne komunikazioetan (errotuluak, mezu ofizialak, email eta komunikatuak, dokumentu laburrak, dokumentu luzeen izenburuak eta aurkezpen eta hitzaldiak) nahiz kanpo komunikazioetan (Euskal Herriko erakundeekiko ahozko nahiz idatzizko harremanetan) bi hizkuntzak erabili beharra jasotzen dute irizpideek. Informatikako nahiz plantetako makinen (botoitegiak eta pantailak) hizkuntza arautzen duten irizpideek ere hala jasotzen dute, aplikazioetako eta lan tresnetako nahiz hauek sortzen dituzten dokumentuetako informazioa bi hizkuntzatan egongo dela, euskarari lehentasuna emanez, eta ahal den kasuetan, informazioa bi hizkuntzatan bikoiztu ordez hizkuntza aukeraren bidea lehenetsiz.

Irizpide hauei esker, besteak beste, euskarak enpresan presentzia handiagoa izatea lortu da. Hala ere ezin esan daiteke presentzia eta erabilera gauza bera direnik. Presentziaz erabilerarako benetako urratsa ematea falta du Ederlanen euskarak, egia da erabilera bera ere gora doala, baina gaztelerak ez bezala, oraindik ezin esan daiteke euskarak lan funtzio guztiak normaltasun osoz betetzen dituenik. Hitzaldi informatiboetan, batzar nagusian, formazio saio eta mintegietan, zabalkunde handiko jakinarazpen eta dokumentuetan, bileretan,.... euskara

erabiltzen da eta enpresako funtzio hauek guztiak betetzen ditu, hori bai, funtzio horiek guztiak gaztelarekin batera betetzen ditu ia gehienetan, eta badakigu bi hizkuntzak agertu behar izaten direnean askotan zer gertatzen den, euskara agertu egiten da, hala da, baina gaztelera izan ohi da batez ere erabiltzen dena. Aurkezpen edo hitzaldietan adibidez asko ikusten da euskara (gardenkietan...) baina gaztelaren aldean gutxi hitz egin edota entzuten da. Desoreka hau gainditu eta euskarak funtzio hauetan guztietan pisu handiagoa hartu dezan azken aldian zenbait urrats eman ditugu, besteak beste aldibereko itzulpen sistema erabiltzen hasi gara mintegi eta aurkezpen jendetsuetan edota lehen gaztelarazkoak ziren kontseilutxoak (euskara hutsezkoak ere badira euskal hiztunentzat) elebidun bihurtzeko plana martxan jarri dugu, hala, euskara euskal hiztun nahiz erdal hiztunen lan tresna izan dadin.

Egia da, hala ere, badirela euskaldunak diren guneak (%70 edo gehiago euskalduna) eta halakoetan euskararen erabilera ia erabat normal eta naturala da, batez ere ahozko lan harremanetan. Gune hauetan nagusiki euskaraz lan egiten da, nahiz eta guzti-guztiekin euskaraz jakin ez, hori bai, normalean guzti-guztiekin ezagutzen dute euskara, ulermen mailan bada ere.

Berezko arnasgune batzuk badirela esan dezakegu hortaz, guk osatu eta martxan jarri nahi ditugunek badute beraz non begiratu Ederlanen bertan. Berezko arnasgune hauetan euskarak funtzio minimo batzuk betetzen dituela esan dezakegu, hau da, gutxienez komunikazioaren jardun informala (ahoz eta idatziz) euskarazkoa da. Arnasguneen proiektuaren bidez komunikazioaren jardun formalari dagozkion funtzioetan ere euskarari bultzadaxoa ematea posible dela ikusten badugu ere, proiektu honi esker uste dugu batez ere jardun informala euskarazkoa izatea lortu behar dugula lehenik.

Mikel Zalbidek, hizkuntzak bete beharreko funtzio minimoen inguruan zioena gogora ekarriz, *“eguneroko bizibide arruntean oinarri-oinarrizkoak diren esparru bakar batzuetan bederen euskara nagusi izaten jarraitu ahal izatea, euskaldun jendeak bere solaskide arruntekin etxean eta auzoan, kalean...,”* uste dugu enpresako bizibide arruntena izan daitekeenean lortu behar duela euskarak lehenik “nagusi izatea”, hau da, komunikazioaren jardun informalean.

Horregatik ba, arnasguneen bidez oraindik ere hutsune handiak ditun esparru informala bete nahi dugu lehenengo, ondoren, apurka-apurka euskara funtzio eta esparru berriak irabazten joan dadin.

Puntu honetara iritsita hausnarketatxo bat egin nahi genuke, hain zuzen ere komunikazioaren jardun formala eta informalari buruzkoa.

Uste dugu beti ez dela erraza jardun formala deitu ohi duguna eta jardun informala deitzen dioguna bereiztea. Normalean informala deitu izan diogu enpresan, kalean lagunartekoa esaten

diogunari, informala esan eta berehala kafe makinan edo bokadilo garaian, pasiloetan edota bulegoan izaten diren lankideen arteko elkarrikeria “arinak” irudikatzen ditugu, beraz, giro edo testuinguru horretatik kanpo gertatzen den gainerako guztia jardun formaltzat hartu ohi dugu.

Banaketa hori onartuz gero bilerak adibidez jardun formalean sartuko lirateke. Baina hala kontsideratu behar al ditugu? eta kasu guztietan kontsideratu behar al ditugu bilerak jardun formalekoak?

Ematen du mintzagaiak berak ere asko markatzen duela zer den formala edota informala, edo hala egiten dugu behintzat. Ematen du jardun formalekoak gai “serioak” direla beti, adibidez ohitura dugu laneko gaiak testuinguru formalean kokatzeko, eta lanetik kanpokoak edo “arinak” edota “ez hain garrantzitsuak” testuinguru informalekotzat hartzeko.

Baina egia dena da bi planoak nahastu egiten direla. Badakigu testuinguru informalean, kafe makinan edota bokadilo garaian adibidez, laneko gaiak ere mintzagai izaten direla, nola ez. Beste horrenbeste esan liteke adibidez normalean formaltzat hartu ohi ditugun testuinguruetan ere. Bileretan adibidez, (edota arduradunarekin langileak dituen solas/despatxoetan) bilera motaren, parte hartzaileen edota egunaren arabera, gertatzen da lanekoak ez diren gaiak ere tarte izaten dutela, gainera hauek tratatzeko modua izan daiteke oso “arina” edo “lasaia” baina baita “serioa” ere, edo gertatzen da baita, laneko kontuak mintzagai izan arren beti ez direla gaiak modu formal edo “serioan” zertan tratatu.

Bistan da ez dela erraza bi jardunak ondo bereiztea, bata dagoen lekuan besteak ere lekua izan ohi du eta, normalean.

Ez dakigu hauek bereizteko erabili beharreko termino egokienak “formala” eta “informala” diren ere, enpresara begira agian hobeto legoke “jardun ofiziala” eta “jardun ez ofiziala” erabiltzea. Lehenean sartuko litzateke enpresaren izenean datorrena, erakundearena edo instituzioarena nolabait esateko, besteak beste, hitzaldi informatiboak, batzar nagusia, kontseilutxoak edota idatzizko jakinarazpen ofizialak leudeke multzo honetan.

Bigarrenetan sartuko litzateke gainerako guztia, bai kafe makinako solasak, baina baita bilerak ere, bakoitzak dituen berezitasunak berezitasun.

Jarduera formalari eta informalari buruzko hausnarketatxo hori egin ostean, kontua da nola areagotuko dugun euskararen erabilera bai batean eta bai bestean.

Eguneroko lanak erakutsi digu oso ezberdina dela kafe makinako, bulegoko edota plantako “lagunarteko” solasetan eragitea edo bileretan -nahiz eta hauetan ere “lagunarteko” solasak eta giroak izaten diren- eragitea.

Ederlaneko langileek eurek ere argi esaten dute bileretan askoz zailagoa dela euskaraz egitea, errazagoa dela bulegoan euskaraz egitea, nahiz eta askotan bulego bereko langileak izan gero bilerako lagun.

Hala da, badirudi lehenengo urratsa bilerez kanpoko “lagunarteko” jardun horretan eman behar dugula, ondoren bileretara jauzi egiteko.

Beraz, arnasguneetan komunikazioaren jardun informalean eragin nahi dugula diogunean non eragingo dugu? **Bilerez kanpoko jardun “informalean” eragingo dugu.**

Uste dugu horrek izan behar duela lehen egitekoa, horregatik, proiektuaren metodologia eremu hori lantzerantz bideratuta dago. Ez duzue beraz bilerek duten “zailtasun extra” hori gainditzeko agian beharrezkoa genukeen metodo edo ekintzarik hemen aurkituko.

Hala ere uste dugu arnasguneak bileretan eragiteko egokiak direla. Proiektu honetan ez dugu bileretan zuzenean lanik egingo baina lortu behar duguna da proiektuan parte hartuko duten pertsonen beraien eragina doazen leku guztietara hedatzea, eta bistan da bilerak ezin ditugula aparte utzi.

7.4. HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEAZ

Euskararen erabilera faktore askok dute eragina. Honako hauek dira gehien eragiten duten faktoreak, eta hurrenkera honetan eragiten dute. (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailordetza, 1995).

- “1) Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea. Zenbat eta gehiagok euskaraz jakin norberaren harreman-sarean (adibidez, familian, lagunartean edo lanean) orduan eta handiagoa da euskararen erabilera. Nolanahi ere, bada gutxieneko edo atalaseko maila bat, euskaraz hitz egiteko ez baita aski solaskideen “erdiak” edo “edo erdiak baino gehiagok” euskaraz jakitea: beharrezkoa da “denek edo ia denek” euskaraz jakitea.
- 2) Norberak euskaraz eta erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna. Euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenak erdaraz errazago mintzo direnak baino askoz ere gehiago egiten dute euskaraz.
- 3) Norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea edo gune soziolinguistikoa. Zenbat eta handiagoa izan norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea, orduan eta handiagoa da

norberaren euskararen erabilera. Gune soziolinguistikoa eta euskararen bizitasun etnolinguistikoa elkarri hertsiki loturik daude. Demografiaren, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren ikuspegitik, euskarak gune soziolinguistiko bakoitzean duen indarra oso ezberdina da.

- 4) Euskararekiko interesa eta jarrera. Zenbat eta aldekoagoa izan euskararekiko jarrera, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera.
- 5) Euskarazko irratia eta telebistaren emanaldiak entzutea edo ikustea. Euskarazko irratia edo telebista gehien entzuten edo ikusten dutenek hitz egiten dute gehien euskaraz.
- 6) Adina. Oro har, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehixeago egiten da euskaraz.”

Kontuan izan behar dugu baita, euskararen hizkuntza komunitateak baino askoz hiztun kopuru handiagoa (beraz, funtzio gehiago betetzen dute eta boteretsuagoak dira) duten gaztelerazko eta frantsesezko hizkuntza komunitateek gurean duten eragina. Gurea menpeko egoera batean bizi den hizkuntza komunitatea da, eta honen ondorio da euskarak bizi duen egoera ez normalizatua (hizkuntzaren corpusari eta statusari dagokionez egoera ez normalizatua) eta erabilera da, besteak beste horren isla.


Hizkuntza bat erabiliko bada hiztunak behar dira, hori bai, hiztunak izateak ez du beti bermatzen hizkuntza erabiliko denik.

Euskararen kasuan ere, hiztun kopurua gakoa da haren erabileran. Euskararen erabilera parametro normalizatuagoetara ekarri nahi bada, hiztun masa kritikoko gutxieneko bat izango duela segurtatu behar da, hau da, hiztun kopuru minimo bat bermatu behar da.

Hiztun horiek osatzen duten masa edo multzoa trinkotu eta sendotzea da euskara gero eta gehiago eta gero eta era naturalagoan eta berezkoagoan erabiltzeko bidea, hau da, hiztunak zenbat eta gehiago (eta zenbat eta osoago) izan, errazago izango du euskarak hiztun, esparru eta funtzio berriak eta gehiago bere egitea. Horretarako baina, euskarak bere garapen linguistiko beregaina izango badu, baldintza sozialak behar ditu, eta gainera, bere erabileraren aldeko motibazio pertsonal eta kolektiboa landu behar dira. Nola, lortu azken hau, ordea?

Txepetxek bere teorian azaltzen dituen hizkuntzen ikas-prozesuaren urrats guztiak bete behar dira hizkuntzaren erabilera bermatuko duen egoerara iritsi ahal izateko. Alegia, motibazioaren, ezagutzaren eta erabileraren nahikotasun mailak bakarrik ahalbidera dezake hizkuntza erabiltzea, bai plano pertsonalean eta baita plano kolektiboan ere. Nondik abiatu baina, plano kolektiboan motibazio, ezagutza eta erabileraren lanketa?

Txepetxek “eremu sinbolikoa” deitzen dio AB eta BA hiztunek osatutako talde soziolinguistikoari. Hitzun hauek osatuko lukete hizkuntza komunitatearen muina, eurak dira hizkuntzaren hiru faktoreetan (motibazioa, ezagutza eta erabilera) kontzientzia (motibazioa), konpetentzia (gaitasuna) eta koherentzia (erabilera) dutenak, hortaz gunee horretan dago izango da bizien eta indartsuen hizkuntza. (Arruti, 2007)



Hizkuntza komunitate trinkotuan AB eta BA hiztunena da komunitatearen zentraltasuna. (Xamar 2001)


Hizkuntza komunitatea trinkotu nahi izatea, hizkuntza komunitatea berregituratu nahi izatea da, euskara komunitatearen ardatz izango den antolaketa berri baten alde egitea. Berregituraketa berri horretan AB eta BA hiztunek izan behar dute gizartearen erreferente eta eredu, horregatik, zenbat eta trinkoagoa izan eremu sinboliko hau, handiagoa izango da hizkuntza komunitatean izango duen eragina eta eraldaketa indarra.

Beraz honekin guztiarekin bi gauza esaten ari gara; batetik hizkuntza komunitate batek gutxieneko masa kritikoa (kantitatea) behar duela, hau da, hitzun kopuru bat, baina horretaz gain hitzun horiek ezaugarri batzuk (kalitatea) izan behar dutela ere esaten ari gara, hau da, AB eta BA hiztunak edo hitzun osoak behar ditugula, batez ere, trinkotzea abian jartzeko.


Eremu sinboliko hau osatzen duten hitzunen egitekoa izango da euskararekiko kontzientzia, konpetentzia eta koherentzia maila apalagoa dutenak muinera erakartzeko ardura, hau da Txepetxek aipatzen duen “nahikotasun mailarik” ez dutenengan eragitea.

Arnasguneen ekimenari esker lortu nahi duguna horixe da Ederlanen. Proiektu honekin lortu nahi dugun lehenengo helburua da Ederlaneko hizkuntza komunitatearen muina ahalik eta gehien sendotzea.

Bigarren helburua da muin edo erdigune sendo hori osatzen dutenen esku tresna edo bitarteko egoki bat uztea, erdigunetik kanpo dauden lankideak erdigunera ahalik eta gehien erakarri eta euskaraz lan egingo duen sare edo komunitate ahalik eta sendoena lortzeko.



*Hizkuntza komunitatea egituratua:
bertako hizkuntza dakitenak erdian*



*Hizkuntza komunitatea desegituratua:
bertako hizkuntza ez dakitenak erdian*

7.4.1. Non begiratu hizkuntza komunitatea trinkotu den jakiteko?

Noiz esan daiteke baina hizkuntza komunitatea trinkotu dela? Zenbat denbora beharko dugu Ederlaneko hizkuntza komunitatea trinkotzeko?

Galdera bi horientzako (batez ere bigarrenarentzako) erantzun argirik ez dugu, hala ere, uste dugu beheko aldagai edo adierazleotan erreparatu behar dugula arnasguneen eragina baloratzeko orduan.

❑ Motibazioa, ezagutza eta erabilera:

Arnasguneen proiektuari esker hizkuntza komunitatea trinkotzea lortu dugun jakiteko, edo helburu horretan urratsik ematen ari garen jakiteko, ezinbestean motibazio, ezagutza eta erabilerari erreparatu behar diogu, hau da, enpresa mailan (edo arnasguneak martxan jarri diren gune bakoitzean) hiru aldagaiok izan duten bilakaerak emango digu neurri handi batean trinkotze-mailaren berri.

❑ Euskararen garapen demografikoa, funtzionala eta geografikoa:

Euskarak Ederlanen demografikoki, funtzionalki eta geografikoki zein bilakaera izan duen ere aztertu beharko dugu. Arnasguneen proiektua abian jarri zenean baino zenbat langile gehiagok daki euskaraz? Eta zenbat langile gehiagok hitz egiten du euskaraz?

Euskarak arrotzak zituen zein funtzio egin ditu bere? Euskara ahozko erabilera informal edo lagunartekoan egin du gora, ala gero eta erabiliagoa da lan bilera eta enpresaren

komunikazio ofizialetan? Ahozko erabileran egin du gora, ala idatzizkoan ere gero eta gehiago erabiltzen da, eta hala bada, zein eratako komunikazio idatzian?

Hedapen geografikoari dagokionez, zein gune edo eremutan erabiltzen da gehiago euskara, bulegoetan ala plantatan? Sail ezberdinei dagokienez (administrazioa, ingeniariaritzak, kalitatea, erosketak,...) berdin erabiltzen al da sail ezberdinetan? zeinetan egin du gora? arnasmuneek izan al dute eraginik?


□ Arnasmuneen azterketa:

Seguruenik arnasmuneei eurei begiratzea izango da erantzunik fidagarriena lortzeko modua. Euskaraz lan egiten al dute arnasmune bakoitzeko euskal hiztunek? eta arnasmune ezberdinek elkarren artean osatzen duten euskal hiztunen sareak euskaraz lan egiten al du? arnasmuneen proiektuak iraun duen denboran bakarrik lan egiten dute euskaraz euskal hiztunek, ala lortu da ohitura berria denboran iraunkor egin eta benetan gazteleraz lan egitetik euskaraz lan egitera pasatzea? aldatu al da hizkuntzazko portaerarik? zenbateraino errotu da euskaldunen artean euskaraz lan egiteko ohitura berria?

7.4.2. Hizkuntza komunitatea trinkotzeko faseen hiru planoak

Oso zaila da hizkuntza komunitatea trinkotzeko ibilbidea irudikatu eta denboran zehaztea. Enpresa bateko hizkuntza komunitateaz ari garela, argi dago kolektibo horren trinkotzean eragina izan dezaketen faktore asko daudela, batzuek trinkotze hori azkartzen lagun dezakete, beste batzuek aldiz oztopatu egin dezakete.

Txepetxek dio hizkuntza bat aztertzen dugunean hiru plano izan behar ditugula kontuan, HIZTUNA, HIZKUNTZA KOMUNITATEA eta HIZKUNTZA bera, edo beste hitz batzuekin esanda, PERTSONA, GIZARTEA eta LURRALDEA.



Hiru plano hauek elkarri eragiten diote, hau da, hiru maila hauen arteko interakzioak eragin zuzena du hizkuntzaren erabileran. *(ikusi erabileran eragiten duten faktore nagusiak 24-25 orrietan)*

- ❑ **PERTSONA EDO HIZTUNA:** Bakoitzaren kasu partikularra da hau. Bakoitzaren hizkuntzazko jarrera eta portaera aztertu behar da, hau da, zein mailatan dagoen pertsona hori hizkuntzarekiko motibazio, ezagutza nahiz erabilerari dagokionez. Bistan da kasuak pertsonak adina izan daitezkeela; hiztuna hiru faktoreetan nahikotasun mailatik gora egotea, faktoreetako batean ere nahikotasunik ez izatea, motibatua egon arren hizkuntza ohiko egoeratan erabiltzeko adinako ezagutzarik ez izatea, nahiz eta hitz egiteko adina jakin euskararik ez egitea beldur delako, inguruan nork lagundu ez duelako, lotsa delako, gutxik jarraitzen diotelako, dakien euskara baloratzen ez duelako,... Ederlanen ere hizkuntzazko portaera bertsua duten lankideak asko dira nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri partikularrak izan.
- ❑ **GIZARTEA EDO HIZKUNTZA KOMUNITATEA:** Hiztunek elkarren arteko harremanen bidez taldeak edo sareak osatu ohi dituzte. Talde horietako euskal hiztunen dentsitateak baldintzatuko du, beste faktore batzuen artean, euskararen erabilera. Esperientziak erakutsi digu, guztiak euskal hiztunak izan beharra dagoela euskaraz lan egingo bada, edo gutxienez ulermen mailan ezagutu behar dutela hizkuntza. Plano honetan ere taldeak euskararekiko zein motibazio eta ezagutza maila duen ikusi behar da. Motibazio eta ezagutzaren mailaren baitan ulertu behar dira langileek eurek gazteleraz egiteko arrazoitzat aipatu ohi dituztenak, besteak beste; “bileran norbaitek euskararik ez badaki, nola hasiko gara euskaraz hitz egiten”, “gauza teknikoa bada hobeto gazteleraz, horrela seguru zaude besteak ulertu dizula”, “urteetan gazteleraz egin ditugu gauza hauek eta orain zaila da aldatzea”, “giroa tentso badago, erdarara pasatzen gara”, “euskaraz idatzi behar badut beti dudatan eta gaizki idazteko, hobeto gazteleraz, gainera jende askok irakurri behar badu,...”
- ❑ **LURRALDEA EDO HIZKUNTZA:** Hizkuntza orok bere lurraldea edo eremua behar du, eremu fisikoak nahiz hizkuntzak bete beharreko funtzioek osatzen dutena. Gure kasuan Ederlan erakundea da eremu fisiko hori eta erakundearen ardura da hartzen dituen erabakien bidez euskarak funtzio berriak bere egin ditzan banako eta taldeen nahiari erantzutea.

Erakundeak banako eta taldeen interesei erantzuten dien ala ez, hau da, pertsona-talde-erakunde mailako sintonia edo sintonia faltak azkartu edo moteldu egingo du hizkuntza komunitatea trinkotzeko egiten diren ahaleginak.

Arnasguneetan elkarri eragiten dioten hiru plano hauek uztartu nahi ditugu, hala, arnasguneen definizioan jasotzen genuen bezala, batetik hizkuntza komunitatea da trinkotu nahi duguna, hori hizkuntzaren (lurraldea) funtzio batzuen inguruan egin nahi dugu –guk hizkuntzaren jardun informala hautatu dugu-, eta horretarako pertsonak edo hiztunek hartutako konpromisoen bidea erabiliko dugu.

8. PROIEKTUAREN METODOLOGIA / HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEA FAGOR EDERLANEN

Arnasguneen proiektuak pertsonen hizkuntza portaerak aldatzea du helburu, horregatik, portaera horiek gauzatzen diren harreman sareetan eragin beharko dugu. Orain arteko hizkuntza ohiturak utzi eta ohitura berri bat geure egitea proposatzen dugu. Pertsonak ohitura berriak har ditzaten hezi egin behar dira, irakatsi egin behar zaie. Aurkezten dugun metodologiak ohitura berri horretarako bidea izan nahi du.

➤ TALDEA

Metodologiaren hitz gakoetako bat taldea da, taldean jarriko da martxan proiektua, eta taldea oinarri dela eta taldetik abiatu nahi dugu aldaketa. Aldaketa hau, talde mailako hizkuntza ohituretan ez ezik, pertsona bakoitzaren eta erakunde mailako hizkuntza ohituretara zabaltzea da helburua.

“Erdararen aldeko funtzionamendu kolektiboa iraultzeko euskararen aldeko erabaki kolektiboa behar da funtsean, bai eta tresna kolektiboak erabiltzea ere. Horregatik diogu gizabanakoek ez baina taldeek izan behar dutela erabilera normalizatu nahi duen mugimenduaren oinarri. Berezko taldeak dira unitate txikiak.

“Berezko taldeen hizkuntza-egoera iraul dezakeen indarra taldeetan betan dago, haien erabaki kolektiboan alegia. Hizkuntza-mekanismo kolektiboak euskararen alde jartzeko prozesuak ezaugarri hauek bete beharko lituzke:

- Talde-motibazioa lantzea, alegia, berez egituraturik dagoen taldeari euskararen aldeko mezuak igortzea, talde osoaren euskal gogoia pizteko, euskararen erabilera areagotzeko erabakia talde osoak adostua izan dadin.
- Behin prozesua abiatuz gero, taldeen osotasunari eustea, taldea sistema osoa izanik sistemaren hizkuntza-norabidea aldatzeko sistema osoarekin lan egin behar baita.
- Euskararen erabilera helburua eta helbidea izatea. Bai ikas-prozesua bia normaltze-prozesua -ohitze-prozesua ere esan diezaiokegu- euskararen erabileran oinarritu behar da, edo nahi bada sozializatzeko-prozesu gisa ezaugarritu dezakegu, non gaitasun handiko hiztunak gaitasun urriagokoen sozializatzaile gisa aritzen diren”. (Jauregi, 1998)

Argi utzi behar da taldea osatzen duen pertsona bakoitzak berak nahi badu bakarrik hartuko duela parte proiektuan, gainera, norbera izango da norberak zein konpromiso hartuko dituen erabakiko duena, hortaz, bakoitzak aukera izango du norbere motibazio, ezagutza eta erabilera ohituren arabera edo neurriko konpromisoak hartzeko.

➤ PROZESUAREN AUTOGESTIOA

“Langileak hizkuntza-ohiturak aldatzearen aldeko jarrera erakutsi eta konpromisoa hartzen badu, hizkuntza-portaera aldatzera bideraturiko prozesu bat hasi beharko du(...). Langileak ibilbide bat hasten du, nekeza, konpromiso bat hartzetik eta konpromiso hori maila batean edo bestean betetzera doana.

Ibilbide horretan, hainbat faktore psikolinguistiko eta psikosozilogiko eragiten dute. Ikas-prozesu bat da azken batean, zeinetan langileak hainbat estrategia erabili beharko baititu, besteak beste, motibazioari eutsi edota hura areagotzekoak. Prozesuaren hasieran, laguntza izatea ezinbestekoa izango du eta hori izango da hizkuntza normalizatzailearen edo dinamizatzailearen zeregina, alegia, prozesua gidatzea eta dinamizatzea, estrategia horiek hizkuntza-ohiturak aldatzeko konpromisoa hartu duten hiztunen eskura jartzea, eta haiek erabiltzen laguntzea.

Aurrera egin ahala, prozesuaren gaineko ardura dinamizatzailearengandik parte-hartzailearengana igaroko da, progresiboki, eta nork bere gain hartu beharko du aldaketa-prozesua, autonomia garatuz.” (Unanue, 2006)

Lasarte-Oriako udalean atal elebidunetako langileen hizkuntza ohituretan eragiteko planeko metodologiaren berri ematean (Unanue, 2006) hizkuntza ohituren aldaketa prozesuan egin behar diren urratsak neurtzeko kontuan izan beharreko hiru parametro aipatzen dira. Guri oso interesgarriak iruditzen zaizkigu, eta Ederlanen ere arnasguneen lanketetan ere kontuan izan behar ditugula uste dugu. Hauek dira:

- Erabileraren **kontrola**: Taldearen nahiz hiztun bakoitzaren erabilerak zein bide egiten duen kontrolatu behar dela dio Unanuek.
- Prozesuaren **erregulazioa**: Prozesua bera erregulatu beharra dago, hau da, burutzen diren ekintzak baloratu egin behar dira, hauen hutsuneak eta indarguneak detektatu eta talderako heuen egokitasuna aztertuz. “Irakaskuntzaren-ikaskuntzako eredu konstruktibistaren arabera, ikasle batek eduki berri bat ikasteari egiten dionean, oro ohar, aurrez eraikiak ditu bere ideia

eta azalpenak, bere esperientzia pertsonaletik abiatuta.(...) Hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuari eredu konstruktibistaren argitan erreparatzen badiogu, esan dezakegu aldaketari ekite aldera langileei eskaintzen dizkiegu edukien aurrean, langileek honela jokatuko dutela: eduki horiek bereganatzerakoan, jadanik dituzten esperientzien gainean eraikiko dituzte ideia berriak, sinestean gainean hain zuzen ere. Beraz, gure eginkizun nagusia izango da sineste horien bilakaera gidatzea, aldaketarantz gidatu ere.” (Unanue, 2006)

- Prozesuaren **ebaluazioa**: “Ebaluazioak, oro har, informazioa eman eta prozesuan inplikatuaren atxikimendua indartzeko balio behar du. Horretarako, etengabeko hitz egin behar du dinamizatzaileak parte hartzaileekin prozesuaren alderdi guztiei buruz, prozesua modu jarraituan hobetzeko: azaltzen diren alderdi positiboak errotzeko eta eragozpenei aurre egiteko. Harreman estua dago ebaluazioaren eta helburuen artean. Lorpenen eta finkaturiko helburuen arteko distantzia eta aplikatutako tekniken eraginkortasuna neurtzean datza oinarritzko ebaluazioa.” (Unanue, 2006)

Hiru parametro hauek garatzeko hiru modu jasotzen dira Lasarte-Oriako esperientzian: **lehena kanpotik** (teknikariak) egiten dena da, **bigarrena taldean** eta taldetik teknikariaren laguntzarekin egiten dena, eta **hirugarrenean hiztun bakoitzak bere burua** autoerregulatzen du, horretarako autonomia garatua duenean. Hiru modu hauek aplikatuko dira prozesuaren etapa edo fasearen arabera.

NOIZ	NORK	ZER / NOLA
Prozesuaren hasieran	Aldaketa-eragileak (teknikariak) hartuko du ardura nagusia. Kanpotik eragiteko aldia da, hetero aldia.	HETERO-KONTROLA HETERO-ERREGULAZIOA HETERO-EBALUAZIOA
Prozesuaren erdi aldera	Teknikariak eta arnasgunea osatzen duten guneko lagunek partekatu egingo dituzte kontrol, erregulazio eta ebaluazio zereginak. Kolaborazio aldia da, eta taldean egingo da.	KO-KONTROLA KO-ERREGULAZIOA KO-EBALUAZIOA
Prozesuaren amaiera aldera	Hiztunak bere erabilera kontrolatzeko eta prozesua erregulatu eta ebaluatzeko dinamizatzailearekin aritu ondoren, bakarka eta autonomiaz jokatu du etapa honetan.	AUTO-KONTROLA AUTO-ERREGULAZIOA AUTO-EBALUAZIOA

Progresio hori baina (hetoro→ ko→ auto) ez da estuegi hartu behar, komenigarria da gainera, prozesuan zehar eta honen etapa edo fase ezberdinetan lanketa mota ezberdinak tartekatzea. Adibidez, KO-laborazio aldiari ekiten zaionean, ondo dago HETERO-aldiko lanketa motak tartekatzea. Edo arnasguneetako kideak AUTOnomoki jokatzera bultzatu nahi ditugunean ere ondo dago beste bi aldietako lanketa eta ekintzak ere tartekatzea, oraindik ere teknikariak tarteka kontrol funtzioa betetzea etab. (Unanue 2006)


Arnasguneen proiektuan ere alderdi bi hauek zaindu nahi izan ditugu bereziki, batetik taldea oinarri hartu nahi izan dugu, eta bestetik, hizkuntza ohitura aldatzeko prozesuaren autogestioa landu nahi dugu. Arnasguneetan parte hartuko dutenei tresnak eman nahi dizkiegu, norbere hizkuntza ohiturez kontziente egin daitezen. Bestetik, taldean bultzatutako hausnarketa eta ariketei esker hartutako konpromisoak betetzeko orduan emandako urratsak baloratzeko gai izan behar dute. Gainera, aurrera begirako urratsak taldean adostu eta bakoitzari nahiz taldeari egiteko geratzen zaion bidea nola egin ere denon artean adosten ikasi behar dugu.

8.1. HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEKO FASEAK ETA ETAPAK

Proiektua martxan jarri nahi den guneak dituen ezaugarrien arabera (euskaldunen dentsitatea, banako nahiz taldeak hizkuntza ohiturak aldatzeko duen nahia edo gogoia, motibazio eta ezagutzaren nahikotasun mailak, euskaraz lan egiteko lehendik dagoen ohitura,...) luzeagoa ala laburragoa izango da hizkuntza komunitatea trinkotzeko egin beharreko ibilbidea, eta beraz, handiagoa arnasguneetan egin beharreko lana.

Abiatzen garen puntutik abiatzen garela, eta enpresa bakoitzean hartu litezkeen lasterbideak lasterbide, era honetan irudikatu dugu hizkuntza komunitatea trinkotzeko egin beharreko ibilbidea, oso-osorik:

HIZKUNTZA KOMUNITATEA TRINKOTZEKO FASEAK



Trinkotzearen gaian ezer argi badugu da, hau ezin dela goizetik gauera egin eta horregatik irudikatu dugun ibilbidea ere epe ertain eta luzera begirako ikuspegia jasoz marraztu dugu. Hala, Fagor Ederlaneko arnasguneen proiektua faseka eta etapaka garatzea proposatzen dugu, urratsez urrats egin beharreko bidea baita hau.

8.1.1. 3 fase eta 4 etapa

Hurrengo puntuan (8.2) emango ditugu ibilbidearen zehaztasunak, hau da, orduan azalduko dugu arnasguneen proiektu honen metodologia zein den, hala ere, aurrera egin aurretik lagungarri izan daiteke fase eta etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren esatea:

- ❑ 1. FASEA: Arnasguneak martxan jarri aurreko fasea da. Sukaldeko lana. Fase honen helburua da Euskara Batzordeetako kideak euskararen gaian formatzea. Fase oso garrantzitsua da hasierako hau, gero sortuko diren arnasguneetako lana eraginkorra izan dadin jarri beharreko oinarriak fase honetan jarri behar dira. Arnasguneak Euskara Batzordeetako kideen inguruan osatuko dira gero, eta hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa nuklearizatzeko gakoa izango da pertsona hauek izango duten portaera.
- ❑ 2. FASEA: Fase honen helburua da arnasgunea martxan jartzen den gune zehatza trinkotzea. Gune horretako kideek elkarren artean adostutako helburuak landuko dira. Helburu hauek bi eratakoak izango dira, eta bi etapatan garatuko dira. 1. etapan ahozko helburuak landuko dira eta urtebeteko epea proposatzen dugu horretarako. 2. etapan idatzizko helburuak landuko dira eta beste urtebeteko epean. Ahozkoan nahiz idatzizkoan, komunikazioaren jardun informala deitu izan zaionean hartuko dira konpromisoak.
- ❑ 3. FASEA: Fase honen helburu da arnasgune ezberdinak harremanetan jartzea eta hala, arnasguneen arteko sarea osatzea, hau da, enpresa mailako trinkotzea lortzea. Horretarako gune ezberdinen artean adostutako helburuak landuko dira. Helburu hauek ere bi eratakoak izango dira, eta bi etapatan garatuko dira. 1. etapan ahozko helburuak landuko dira eta urtebeteko epea proposatzen dugu horretarako. 2. etapan idatzizko helburuak landuko dira eta beste urtebetean. Fase honetan ere, komunikazioaren jardun informalean hartuko dira konpromisoak, ahoz nahiz idatziz.

- ❑ ERAKUNDEAREN BABESA: Funtsezkoa da hau guztia gauzatu nahi duten banako eta taldeek erakundearen babesa izatea, hau da, arnasguneen helburuarekin bat datozen eta helburu hauek lortzea errazten duten neurriak hartzen direla ikustea. Ibilbidearen marrazkian ere hala jaso nahi izan dugu, erakundeak proiektu hau babestu eta indartu egin behar du, ibilbide hau bere egin behar du.

8.1.2. Etapak bakoitzeko urtebete

Urtebeteko epe hau gutxi gorabeherakoa da. Arnasguneen proiektua martxan jarri nahi den gunearen edota enpresa beraren ezaugarrien arabera, urtebeteko epea luzeegi edo motzegi irudi dakiguke helburuak lortzeko. Etapak bakoitzak zenbat iraungo duen zehazteko orduan gakoetako bat izango da ahozko nahiz idatzizko helburuak zenbateko sakontasunez landu nahi ditugun, proiektuak eskatzen dituen bilerek zein maiztasun izango duten, zenbat motibazio saio edota motibazio ekintza egingo diren, azken finean zein egoeratik abiatzen garen ere kontuan hartu beharko dugu, eta lehendik ere zenbateraino den trinkoa gunea, etapa bakoitzean egiteko gehiago ala gutxiago izango dugu.

Guri interesgarria iruditzen zaigu gutxienez urtebete eskaintzea etapa bakoitzari, uste baitugu urtebeteko ikuspegia behintzat izan behar dugula helburuak zehaztu eta lantzeko.

8.1.3. Lehenengo ahoz eta gero idatziz

Ederlanen ahozko harremanei eman nahi diegu lehentasuna. Idatzizkoan ere zer eginik baden arren, uste dugu ahozkoa lantzetik hasi behar dugula. Helburua da euskaraz dakitenek hartzea komunitatearen erdigunea, eta hau egingarriagoa iruditzen zaigu lehenengo ahozko helburuak lantzetik hasten bagara, hartara, hasiera-hasieratik A hiztunak (euskaldun zaharrak) inplikatu eta motibatzeak aukera izango baitugu. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu talde hau hasieratik bertatik protagonista egitea, talde honek proiektuari begira duen garrantzia hasieratik azpimarratzea. Idatzizko helburuak lantzetik hasiko bagina iruditzen zaigu zailago izango genukeela hiztun multzo hau erdigunera erakartzea. Ederlaneko kasuan esan behar da multzo hau euskararekiko oso fidela dela (ahoz), askotan AB edo BA hiztunak baino fidelago, horregatik euskaldun zaharren


ekarpena funtsezkoa da. Beste arrazoi bat da zuzeneko langileek gutxi sortzen dutela idatziz (lan aginduak, arrisku potentzialak, iradokizunak eta lan bonuak) horregatik, ahozkotik hasteak hasiera-hasieratik haiekin lan egitea ahalbideratzen digu.

Guk hala markatu dugu bidea, dena den ez dugu esaten helburuak hurrenkera horretan bakarrik landu daitezkeenik. Delako arnasmunean egoki ikusten bada ahozko helburuekin batera idatzizkoak ere landu egin behar direla, batera landu daitezke. Edo gerta liteke gune batean ahozko helburuak lortuak egotea, hau da, gune horretako euskal hiztunen arteko ahozko harremanak euskaraz izatea erabat, kasu horretan idatzizkoetatik has gintezke. Kasu edo gune bakoitza aztertzea eta diagnostiko egokia egitea da garrantzitsua, eta helburuak gune edo langile horien errealitatera egokitzea, langileek eurek finkatu behar dituzte euren helburu edo konpromisoak.

8.1.4. P/D/C/A

Etapak bakoitzean, guneko lankideen artean edota gune ezberdinetako lankideen artean (fasearen arabera) adostutako helburuak landuko dira. Helburu hauek ahozkoak izango dira lehenengo etapan, eta idatzizkoak bigarrenetan.

Helburuak lantzeko PDCA zikloa betetzea proposatzen dugu. (metodologiaren atalean azalduko dugu etapa bakoitzean nola osatu zikloa) dena den, haxe da, grafikoki, helburuak lantzeko prozesua:



8.1.5. Erabileratik motibaziora

Aurretik esana dugun bezala, uste dugu Ederlanen euskarazko hizkuntza ohitura berriak errotuko badira euskal hiztunekin hasi behar dugula lanean. Hizkuntza komunitatea trinkotzeko lana hauena da (hori bai, erdal hiztunekin batera egin behar da), eurengandik abiatu behar da eraldaketa. Horregatik, arnasguneak euskal hiztun kopuru minimo bat den guneetan martxan jartzea gomendatzen dugu, hala egin dugu guk, baldintza optimoenak dituzten guneak aukeratu. Gehienek (edo gutxienez erdiek) euskaraz dakitela segurtatuta, gune hauetan lantzea proposatzen dugun **bidea erabileratik motibaziorakoa da**. Erabilerara konpromisoetatik abiatuta, (bide batez ezagutza ere areagotuz) euskal hiztunek motibazioaren kupela ahalik eta gehien bete dezaten nahi dugu, ondoren motibazio honekin bat datorren euskarazko portaera sendoagoa izan dezaten taldean eta enpresa mailako harreman sareetan.

Nahikoa euskal hiztun ez den guneetan arnasgunerik martxan jarri nahi bada, alderantzizko bidea egin beharko da, hau da, motibaziotik erabilerarakoa. Halako guneetan batez ere eta bereziki motibazioa landu beharko da, funtzio honetan nahikotasun maila bat lortzea izan behar da helburua, aurrerago ezagutza eta erabilerara jauzia ematea errazteko. Bistan da beste mota bateko helburuak landu beharko direla erdal hiztunak nagusi diren guneetan.

Guk hemen aurkeztuko dugun bidea ez da hau, Ederlanen erabileratik motibaziorakoa landuko baitugu. Dena den, Ederlaneko kasuan erdal hiztunekin nola lan egin dugun eta eurekin zer lantzea proposatzen dugun, zenbait argibide aurkituko dituzue.

8.2. 1. FASEA: ABIAPUNTUAREN GARRANTZIA

Proiektua martxan jarri den guneak askotarikoak izan dira; bulegoak, fabrikazio plantak, zuzendaritza batzordea, ... eta proiektuan parte hartu duten langileak ere halatsu; zuzendariak, zeharkako langileak, zuzeneko langileak, arduradunak, hori bai, martxan jarritako arnasgune guztiek zerbait dute komunean, guztietan dago Euskara Batzordeko kideren bat.

Arnasgune ezberdinak martxan jartzeko erabili dugun irizpide nagusia horixe izan da, Euskara Batzordeko kideren bat, posible bada gehiago, tartean izatea.

Uste dugu Fagor Ederlaneko euskara planaren erdigunea Euskara Batzordeak direla, eurak dira erakundeak eta planak behar duen masa kritikoaren muina. Eurak dira motibatuenak eta eurek


izan behar dute ingurukoen motibatzaile eta eragile, horregatik erabaki dugu eurak izatea proiektua martxan jarriko dutenak, 1. fasean parte hartuko dutenak.

Arnasguneen proiektuaren bidez pertsona hauek planean duten erantzukizun eta protagonismoan urrats bat gehiago eman nahi dugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu euskararen gaian pertsona hauek izatea erreferente euren lan eremuetan, badira izan, baina euren figura indartzeak plana bera indartuko du.

Arnasguneen proiektua pertsona hauek heziz eta zainduz hasten da, beraz, erdigune ahalik eta indartsuena osatzetik abiatuko gara. Uste dugu hala hobeto metatuko ditugula indarrak, erakarmen indar handiagoa izango dugula, eta muina zenbat eta trinkoagoa izan, euskal komunitatea bera ere honen inguruan trinkotzea errazagoa izango zaigula.

Nola egin hori, ordea? Uste dugu horretarako errezeta euskararekiko eta euskararen gaiarekiko gero eta kontzientziario eta ezagutza handiagoa izatea dela. Euskara Batzordeak formatu egin behar dira beraz, prestatu egin behar ditugu erreferente izan daitezen.

Irudi honetan irudikatu nahi izan dugu Euskara Batzordeetako kideek jaso beharreko formazioa:



➤ PERTSONA

- Pertsonaren alderdi psikologikoa hizkuntzaren erabileran, asertibitatea nola erabili hizkuntza gatazkaren aurrean,...
- TELP: Taller d'espai lingüístic personal. (Suay i Lerma, F eta Sanginés Sáiz, G, 2005)

➤ HIZKUNTZA

- Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza ekologia, hizkuntzaren funtzioak, diglosia, elebitasuna, normalizazioa,...

➤ GIZARTEA

-Komunitatea, komunitatearen indarra, eragileak enpresan, enpresaren erantzukizuna, hizkuntza eskubideak, euskara normalizatzeko proiektuaren helburu nagusia eta arauak, bakoitzaren egitekoa,...

Formazioaren abiapuntu eta aldi berean helmuga pertsona izatea proposatzen dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu formazioa norbere hizkuntza ohiturak aztertzetik hastea, hau da, norbere portaeraz kontziente izatea. Helburua Ederlaneko egunerokotasunean euskara ahalik eta modu naturalenean erabiltzea izanik, garrantzitsua da egunero-egunero errepikatzen diren egoerak eta egoera horietan bakoitzak duen jarrera eta portaera aztertzetik hastea. Euskararen erabilera natural horretara iristeko bidea zabaltzeko ardura edo erabakia hartu dutenak dira formazioa jasoko dutenak, hau da, euren lantoki edo eragin eremuan euskaraz egiteko hautua egin dutenak.

Baina badakigu hori beti ez dela posible, erraza ez behintzat, sarri sortzen dira hizkuntza gatazkak, euskaraz hitz egin nahi eta ezin, besteak euskaraz egiteko gure nahia ulertu ez, tartean bada beti norbait ez dakiena eta halakoetan euskaraz egitea “ez dago ondo” ... Halakoetan bi bide hartu ohi ditugu askotan. Batzuetan gure jarrera arrazoitzen hasten gara, hau da, euskara erabiltzeko argumentuak pilatzen, baina bide honetatik ibilbide laburra egin ahal izaten dugu gehienetan, parean dugunak bere argumentuak izan ohi dituelako, harentzat, gureak baino pisuzkoagoak. Eta beste batzuetan lankideen artera gaia atera baino -gatazka sortuko “dugun” beldurrez-, gazteleraz egin eta kitto, horrela urik ez da sekula harrotzen.

Badakigu honek guztiak haserrea, etsipena... baino ez duela sortzen euskaraz hitz egin nahi eta lortzen ez duenarengan, batetik sortzen diren hizkuntza gatazkak beretzat modu osasungarrian kudeatzen jakin ez duelako eta gainera, euskaraz egiterik lortu ez duelako.

Nola lortu beraz, gatazka horiek modu eraginkorrean kudeatzea? Eta jakina, nola lortu euskaraz egitea?

Interesgarria iruditu zaigu TELP tailerren (Suay i Lerma, F eta Sanginés Sáiz, G, 2005) bidea landuz pertsonaren alderdi psikologikoak hizkuntzaren erabileran duen garrantzia jabetzea. Alderdi psikologikoaren lanketak gatazka egoerak ongi kudeatzen ikasteko aukera asko eskain ditzake eta gai honetan sakondu egin behar dugula uste dugu. **IKUSI 1.ETA 2.ERANSKINAK**

Heziketa honen muina da hiztun asertiboak lortzea eta esaten da bertan, enpatia eta optimismo landuta lortu behar dela hizkuntza gatazketatik “onik ateratzea”. Enpatia lantzen da, besteak beste, eta berdintasunaren diskurtsoan sakontzeko aukera ere ematen du, hau da ez da bestearen hizkuntza areriotzat hartu behar. Berdintasunaren diskurtso hau da bestea norbere errealitatera erakartzeko bidea, adibidez erdal hiztunak erakartzekoa izan daiteke.

Gure eskubideak defendatu eta lortu behar ditugu, baina bestea mindu gabe, geure buruarenganako konfiantzarekin.

Formazio saioen hurrengo geltokia hizkuntzaren inguruko saioek osatuko dutela pentsatu dugu, hala, garrantzitsua iruditu zaigu hizkuntza aniztasuna, hizkuntza ekologia, hizkuntzaren funtzioak, normalizazioa edota diglosia bezalako edo soziolinguistikako beste kontzeptu eta gai batzuetan batzordeetako kideak janztea.

Hurrengo eduki multzoa gizarteak (edo enpresak) osatuko luke. Gatazkak kudeatzen trebakuntza jaso ostean eta hizkuntzaren inguruko oinarritzko kontzeptuez jantzi ostean, azken multzo honetako edukiek (hizkuntza eskubideak, hizkuntza aukera, ...) bat egingo lukete berriro ere plano pertsonalarekin, hau da, bakoitzak euskararen gaian Ederlanen duen egitekoarekin; "inoren zaien egon gabe, ekin zeuk euskararen alde", edo "izan nahi baduzu, izan zaitez!!"

1. fase honetako formazio saioetako edukiak arnasguneetara hedatu beharko dira hurrengo faseetan, hau da, Euskara Batzordeetako kideak eurak (hasieran teknikariaren laguntzarekin) izango dira euren inguruan osatuko diren arnasguneetan hezitzaile funtzioa hartuko dutenak, nola ez, kasu bakoitzean zer eta nola irakatsi egokitu egin beharko dela arnasgune bakoitzaren ezaugarrietara.

8.3. 1. ETA 2. FASEAK: P/D/C/A ZIKLOAREN DESKRIBAPENA

Puntu honetan fase bakoitzean emango diren urrats eta burutuko ditugun ekintzen deskribapena egingo dugu. Horretarako P/D/C/A zikloa jarraituko ditugu, ziklo honen urratsak izango dira beraz, hizkuntza komunitatea trinkotzeko burutu beharrekoa ibilbidean eman beharko ditugunak.

Esan behar dugu baina, puntu honetan 2.fasearen 1. etapa izango dela deskribatuko duguna, ez ditugu ez fase honen 2. etapa eta ezta 3. fasea ere deskribatuko. Uste dugu 2.fasearen 1. etapa ahalik eta modu zehatzenean deskribatuta, beste etapetan egin beharrekoa irudikatzeko nahikoa izango dela. Aurreratu dugu 8.1 puntuan zein den etapa bakoitzaren helburua (ahozkoa, idatzizkoa, gunea trinkotzea, gune ezberdinen arteko trinkotzea,...) horregatik, etapa bakoitzak bere berezitasunak dituelako, puntu honen amaieran azalduko ditugu etapa bakoitzean bereziki kontuan izan beharrekoak.

8.3.1. Nola irudikatu behar dugu arnasgune bat?

P/D/C/A zikloa jarraituz 1.etaparen berri ematen hasi aurretik arnasgune baten argazkia ekarriko dugu hona.


Gogoratu behar dugu berriro, Ederlaneko arnasguneetan planteatzen dugun **bidea erabileratik motibaziorakoa** dela, hau da, arnasguneen proiektua martxan jartzea erabaki den guneko kideen euskararekiko motibazioa eta ezagutza kontuan beti hartuko badira ere, erabileratik abiatuko gara gune bakoitzeko argazkia egiteko.

Beste era batera esanda, gunearen diagnosi osoagoa egiteko motibazioa eta ezagutza aintzat hartzea ezinbestekoa den arren, egia da erabilera (portaera den neurrian) hiztun bakoitzaren motibazio eta ezagutzaren erakusle ere badela, horregatik, hiztun bakoitzari euskaraz zenbat egiten duen galdetzea nahikoa dela uste dugu gune bakoitzaren argazki orokorra ateratzeko.

Argazkiak gunearen berri emango digu, eta argazki horretako muina osatzen dutenek, hau da, euskaraz gehien egiten dutenek arnasgunea osatuko lukete. Hori bai, arnasguneen proiektuan ez dute hauek bakarrik parte hartuko, euskaraz hainbeste edo batere egiten ez dutenek ere parte hartuko dute.

Hizkuntza komunitatea, -edo enpresako gune jakin bat-, elkarren barruan dauden hiru zirkuluren bidez irudikatuko dugu.

Hauxe da gune horretako erabileraren mapa edo gunearen argazkia:



- ❑ ARNASGUNEA: Hizkuntza komunitatearen muina edo erdigunea da, sarrerako hitzak gogoratzuz, (Z Zalbide, M eta Erize, X 2007) "(...) euskara bere kabian sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe etxeko jaun sentitzen den eremua(...). Euskaldunen bizimoduak erdal eraginaren pean jarraituko du arnasguneotan, parterik handienez: erdaldunekin harremanetan segitu beharko


du (...) baina gutxien-gutxieneko oreka-modu bat lortu da ingurumen eta jardungune batzuetan euskara-erdaren artean, hesi-moduko bat mantentzea”.

Hiztun aktiboek osatzen dute erdigunea. Euskal hiztunak dira eta elkarren artean modu kontziente eta konstantean egiten dute euskaraz. Zerbait naturala da eurentzat, eta hala egiten dute.

- ❑ **ARNASGUNE POTENTZIALA:** Gure egitasmoaren helburua da bigarren zirkulu hau erdigunean urtzea edo harekin bat egitea. Bigarren zirkulu honetakoei *hiztun ez hain aktiboak* deituko diegu. Euskal hiztunak dira baina ez dute beti euskaraz egiteko ohiturarik. Lankideen laguntza behar dute euskaraz egiteko ohitura har dezaten, tartean egon liteke euskara ikasten ari denik.
- ❑ **KANPOKO ALDEA:** Hirugarren zirkulu honetan *nahikotasun mailarik gabeak* kokatzen dira, euskaraz egiteko ezagutza maila nahikorik edo jarrerarik ez dutenak.

Hizkuntza komunitatea elkarren barruan dauden hiru zirkulutan antolatuta irudikatzeak enpresako gune bakoitzean euskaraz zein pisu duen ikusten laguntzen du.

Zirkulu bakoitzean dagoen hiztun kopurua zein den ikusita -hiztun bakoitza zein tipotako hiztuna (AB,BA, A, B, Ø) den ere ikusi behar da, Txepetxen arabera komunitate trinko batean hiztun bakoitzak non egon beharko lukeen kontuan izanda zirkuluetan bakoitzari zein ibilbide egitea tokatzen zaion jakin dezakegu-, gune horretako hizkuntza nagusia zein den jakin dezakegu. Gainera, euskal hiztunen artean lehenengo hizkuntza euskara den ala ez ere jakingo dugu, hau da, euskal komunitatea trinkoa den ala ez. Argazki honek ematen digu informazioa -bakoitzaren euskararekiko motibazio, ezagutza nahiz erabilera maila zein den-, oso pista baliagarria izango dugu ondoren martxan jarriko ditugun dinamika eta taldeko lanketak bideratzeko.



Hizkuntza komunitate trinkoa

Hizkuntza komunitate desegituratua

Lehenengo urratsa hizkuntz komunitatearen erdigunea sendotzea da, ondoren bigarren zirkuluan dauden hiztunengan eragin eta hauek ere erdigunera erakartzeko. Horregatik ba, arnasguneen proiektuak *hiztun aktiboak* eta *hiztun ez hain aktiboak* ditu helburu, baina ez horiek bakarrik, *nahikotasun mailarik ez dutenekin* ere lan egitea proposatzen baitugu.

8.3.2. P/D/C/A

Euskararen arnasguneak zein gunetan martxan jarriko ditugun erabakitzea da lehenengo urratsa. Ondoren, 1. etapa planifikatzeari ekingo diogu. Gogoratu etapa honetan ahozko jardun informalaren erabilera areagotzea dela helburua, eta gunea funtzio horren inguruan trinkotzea.

1. etapan, planifikazio aldi honetan burutu beharrekoak honako hauek dira; ahozko erabileraren diagnosia egin, etaparako helburua adostu, denon artean arnasguneen metodologia adostu eta baliabideak eta norberaren eta taldearen egitekoak finkatu.

Planifikazio lanen lehen egitekoa gune horretako ahozko erabileraren diagnosia egitea da, dena den, horretan hasi aurretik komeni da proiektuaren berri ematea ondoren bertan parte hartuko dutenei. Honen ardura teknikariak hartuko du, hala ere, komeni da jada hasiera-hasieratik gune horretako Euskara Batzordeko kidea(k) egiteko honetan inplikatzeko.

Hau banan-banan egin daiteke, edota posible den kasuetan eta hala egitea hobeto ikusten bada, langileak horretarakoxe bildu daitezke. Hasierako kontaktu honetan informazio baliotsua lor daiteke parte hartzaile izango direnengandik, proiektua zer iruditzen zaien jaso daiteke batetik, ondo ikusten duten ala ez, egingarria nahiz egin beharrekoa iruditzen zaien, edota proiektuak sortzen dizkien zalantzak edo beldurrak arindu edo argitu ere egin ditzakegu eurekin.

Ikus ditzagun planifikazio aldiko egitekoak banan-banan:

❑ **Ahozko erabileraren diagnosia egin**

Diagnosiaren abiapuntua gunearen argazki orokorra ateratzea da, 8.3.1 puntuan erakutsi dugu argazki horrek zein itxura izango duen. Argazkia osatzeko gune horretako langile bakoitzarengana jo eta galdera hau egingo diegu: (erantzun posibleak hiru dira)

“zure lankide euskal hiztunekin euskaraz egiten hitz duzu?”

a) beti edo ia beti b) batzuetan c) ez

Jasotako erantzunaren arabera, pertsona bakoitza hiru zirkuluetako batean jarriko dugu, goian azaldu bezala.

Guneko langileek galderei erantzundakoan guneko horretako argazki orokorra (ikus 47. orriko irudia) izango dugu. Langileek eurek emandako erabilera aitortua da argazki orokor horretan jasotzen dena.

Ezer baino gehiago, guneko euskararen erabileraren mapa antzeko bat izango da argazkia, argazkiak esango digu bertako hizkuntza komunitatea trinkotua dagoen ala aldiz desagituratua dagoen.


Argazkiak erakutsiko digu zein den abiapuntua, hau da, ahozkoan zenbat euskara hitz egiten den guneko horretan, zenbat diren hiztun aktiboak, zenbat ez hain aktiboak eta zenbat nahikotasun mailarik gabeak. Gainera, hiztun bakoitzak (AB, BA, A, ...) modu oso argian ikusi eta jakingo du non dagoen eta non egon beharko lukeen gunea trinkotu nahi badugu.

Honako hauek guneko jakin bateko hiztunak dira:

ALEX: Ø+	AITOR: A	GURUTZ: AB	MARIJE: A	XABIN: AB
BEGOÑA: A	MARIA: BA	AMALUR: AB	M.CARMEN: Ø+	IGOR: AB
BELEN: BA	VICTOR: Ø+	JOSEAN: Ø+	ROSA: AB	JULIAN: A
LEIRE: AB	MARIELI: BA	OIHANA: AB	ANTONIA: B	JESUS B: Ø
MERTXE: A	ISIDRO: A	MARGA: B	JOSE MARI: A	

Oharra: Ø+ jarrita bereiztu nahi izan ditugu erabat erdal elebakarrak ez direnak, hau da, ibilbide kulturala hasi baina oraindik nahikotasunik lortu ez dutenak ez ezagutzen ez erabileran. Esan behar da baita, Xabin, Maria, Isidro, Oihana, Marga eta Mertxe, Euskara Batzordeko kideak direla.

Hau da gune horretako lankideen erabilera mapa. Ikus dezagun bakoitza non dagoen:



Guneko ikuspegi orokorrak gain baina, hiztun bakoitzarengan eragitea da gure helburua, horregatik elkarren arteko hizkuntza ohiturak zeintzuk diren jakin behar dugu.

Langileei, lankide bakoitzarekin euskaraz zenbat hitz egiten duen galdetuko diegu ondoren, horrela, hiztun bakoitzaren eta hiztun bikote bakoitzaren hizkuntza ohitura zehatzak ezagutuko ditugu. Informazio hau jaso egingo dugu, baina ez hori bakarrik, elkarrekin euskaraz zenbat hitz egiten duten galdetzeaz gain baina, urtebeteko epean euskaraz zenbat hitz egiteko konpromisoa hartuko duten ere galdetuko diegu, hau da, lankide-bikoteek euren artean adostu beharko dute urte amaiera bitarteko ahozko konpromisoa. Konpromisoak bi aldeentzat izan behar du lorgarria.

Lankideek elkarrekin hartutako ahozko konpromisoak:

	Gurutz	Maria	Amalur	Igor	Xabin	Marije	Begoña	M. Carmen	Belen	Alex	Victor	Josean	Rosa	Julian	Leire	Aitor	Marieli	Oihana	Antonia	Jesus B.	Mertxe	Isidro	Marga	Jose Mari
Gurutz		100	100	50-75	50-75	50-75	10-30	0-5	10-75	0-10	0-10	0-5	100	0-10	100	50-75	100	100	5-25	0-5	10-50	50-100	10-50	50-100
Maria	100		100	100	100	100	30-50	5-10	70-100		10-30	5-20	100	70-90	100	100	100	100	100	0-5	30-50	100	10-50	100
Amalur	100	100		100	100	100	30-50	10-20	90-100	10-20	10-20	10-20	100	90-100	100	100	100	100	100	0-5	100	100	10-50	100
Igor	50-75	100	100		50-70	50-75	25-40	5-10	5-25		0-10	0-10	25-50	10-20	100	100	100	100	5-20	0-5	25-50	100	5-15	100
Xabin	50-75	100	100	50-70		50-75	15-35	5-10	25-75	0-10	10-20	10-20	80-100	20-50	100	75-100	100	100	100	0-5	25-50	80-100	5-25	80-100
Marije	50-75	100	100	50-75	50-75		20-40	0-5	25-50		5-10	10-25	25-75	0-10	100	50-75	25-50	100	0-25	0-5	25-50	50-75	0-25	35-75
Begoña	10-30	30-50	30-50	25-40	15-35	20-40		0-5	0-25		0-10	0-10	20-40	0-20		30-50	10-25	25-50	10-30	0-5	10-30	20-40	0-25	20-40
M. Carmen	0-5	5-10	10-20	5-10	5-10	0-5	0-5		0-5		0-5	0-5	0-5	0-5	5-10	5-10	0-5	5-10	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5
Belen	10-75	70-100	90-100	5-25	25-75	25-50	0-25	0-5			0-5	10-20	10-50	0-20	90-100	10-25	10-25	90-100	10-25	0-5	5-25	10-25	0-25	25-50
Alex	0-10		10-20		0-10						0-20	0-20		0-20										
Victor	0-10	10-30	10	0-10	10-20	5-10	0-10	0-5	0-5	0-20		0-20	0-20	0-20	0-10	0-10	0-10	0-10	0-10		0-10	0-10	0-10	0-10
Josean	0-5	0-5	10	0-10	10-20	10-25	0-10	0-5	10-20	0-20	0-20		5-10	0-20	5-20	5-10	5-10	5-10	5-10	0-5	5-10	5-10	5-10	5-10
Rosa	100	100	100	25-50	80-100	25-75	20-40	0-5	10-50		0-20	5-10		10-25	100	50-75	100	100	100	0-5				
Julian	0-10	70	90	10-20	20-50	0-10	0-20	0-5	0-20	0-20	0-20	0-20	10-25				0-10	0-10	0-10	0-5	0-10	10-20	0-10	0-10
Leire	100	100	100	100	100	100		5-10	90-100		0-10	5-20	100			100	100	100	100		100	100	50-75	100
Aitor	50-75	100	100	100	75-100	50-75	30-50	5-10	10-25		0-10	5-10	50-75		100		75-100	100	75-100	0-5	100	100		100
Marieli	100	100	100	100	100	25-50	10-25	0-5	10-25		0-10	5-10	100	0-10	100	75-100		100	50	0-5	0-20	100		50-75
Oihana	100	100	100	100	100	100	25-50	5-10	90-100		0-10	5-10	100	0-10	100	100	100		100	0-5	100	100		100
Antonia	5-25	100	100	5-20	100	0-25	10-30	0-5	10-25		0-10	5-10	100	0-10	100	75-100	50	100		0-5		10-25		10-25
Jesus B.	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5	0-5			0-5	0-5	0-5		0-5	0-5	0-5	0-5		0-5	0-5		0-5
Mertxe	25-50	30	100	25-50	25-50	25-50	10-30	0-5	5-25		0-10	5-10		0-10	100	100	0-20	100		0-5		50-75	0-50	50-75
Isidro	50-100	100	100	100	80-100	50-75	20-40	0-5	10-25		0-10	5-10		10-20	100	100	100	100	10-25	0-5	50-75		0-50	100
Marga	10-50	10	10	5-15	5-25	0-25	0-25	0-5	0-25		0-10	5-10		0-10	50-75						0-50	0-50		0-50
Jose Mari	50-100	100	100	100	80-100	35-75	20-40	0-5	25-50		0-10	5-10		0-10	100	100	50-75	100	10-25	0-5	50-75	100	0-50	

Taula honetako gelaxka bakoitzak bi zifra ditu (ehunekotan), lehena da zenbat egiten duten euskaraz eta bigarrena hartzen duten erabilera konpromisoa. Euren artean aparteko lan harremanik ez duten lankideek ez dute konpromisorik hartu.

Taula hau gertuagotik ateratako argazki bat dela esan daiteke, bertan ikus daitezke argazki orokorrean ikus ezin daitezkeen detaileak. Adibidez; bere burua erdigunean kokatua duen AB hiztunak euskal hiztunak diren lankide guztiekin beti egiten du euskaraz, hala ere baditu lankideak, zeintzuekin ez duen beti euskararik egiten, edo ez ezagutzen eta ez erabileran oraindik nahikotasun mailarik ez duenak (B hiztun mota da eta euskara ikasten ari da), maila xumean bada ere euskal hiztun guztiekin egiten du beti euskaraz, hortaz erabileraren mapan erdian agertzen da, hala ere, konpromisoen taulak erakusten digu berari ez diotela denek euskaraz egiten, ... taulak guneko bakoitzak guztiekin dituen hizkuntza ohiturak erakusten ditu.

❑ **Etaparako helburua adostu**

Garrantzitsua da 1.etapa honek izango duen helburua eta konpromisoak ondo bereiztea.

Nolabait bereiztearren, helburuak taldearenak direla esango dugu, eta konpromisoak bakoitzarenak. Etapa bakoitzak bere helburu zehatza du, deskribatzen ari garen honek adibidez **ahozko jardun informala areagotzea** du helburu, eta **gunea trinkotzea**. Helburu hau guztiena da, hala, bakoitzak dagoen zirkuluaren arabera egitekoa izango du. Hau da, zirkulu bakoitzak bere egitekoa izango du, eta zirkulu bakoitzak berea betetzen badu goian aipatu dugun helburua lortu egingo da, taldeak lortuko du hori. Hauexek dira zirkulu bakoitzaren egitekoak:

- Euskal hiztun aktiboak (Arnasgunea): *Euren helburua izango da hiztun aktiboen arteko ahozko harremanak %100ean euskaraz izatea eta ingurukoengan eragitea.* Ingurukoengan eragiteko (2.eta 3.zirkulukoengan) hauei ere euskaraz egingo diete, baina beti ere hauek erantzuteko gai diren neurrian, hau da, 2. eta 3. zirkulukoak hartzeko prest dauden konpromisoak errespetatu egin beharko dituzte. Ezingo dute lorgarria ez den konpromisorik hartu horretarako nahikotasun mailarik ez duten lankideekin, tira egin bai baina neurrian eta modu progresiboan.
- Hiztun ez hain aktiboak (Bigarren zirkulukoak): *Euren helburua izango da euren artean batzuetan (%30) edo gehienetan (%60) euskaraz hitz egitea.* Moltzo honetan egon liteke euskaraz ikasten ari denik, eta laguntza behar duenik, laguntza hori elkarrengandik eta arnasgunekeogandik jasoko dute. Tira egin behar zaie, baina beraiek segi egin behar dute.
- Nahikotasunik gabeak (Hirugarren zirkulukoak): *Ez zaie ahozko konpromisorik eskatuko,* eurek hala eskatzen ez badute behintzat. Hala bada, euskarazko agur

edo hitz solteak erabiltzera animatuko ditugu, euskal hiztunen bat gauza errazak esanez euskaraz zuzentzen zaienean. *Eskatuko zaiena da jarrerazko konpromisoa*, hau da, euskal hiztunek euren artean euskaraz gehiago hitz egiteko hartutako erabakiaren aurrean begirunea izatea.

Horiexek dira batzuen eta besteen, hau da, taldearen helburuak. Konpromisoak aldiz bakoitzarenak dira. Bakoitzaren neurrikoak gainera, horregatik, langileek eurek elkarrekin adostuko dituzte etapak iraun bitarteko ahozko konpromisoak, 48. orriko taulan jasotzen direnak, alegia. Garrantzitsua da konpromisoak betetzea, eta horretarako laguntza izan behar dute proiektuko parte hartzaileek, izan ere, konpromiso pertsonal hauek bete ezean nekez lortuko da talde mailako helbururik.

❑ **Metodologia adostu eta norbere eta taldearen egitekoak finkatu**

Garrantzitsua da gunearen diagnosia egin eta helburu eta konpromisoak zehazteko orduan egin dugun bezalaxe, proiektuaren metodologia adosten ere parte hartzaile guztiak inplikatzeko, zer lortu nahi dugun argi izan behar da, baina baita nola lortuko dugun ere.

Taldean argi utziko dugu, erabileratik abiatuko bagara ere (erabilerari egingo zaio jarraipena) bereziki sentsibilizazioa edo motibazioa izango dela landuko dena, eta maila apalagoan baita ezagutza ere, adibidez, ahozkoaren erabileran aurrera egiteko ezagutzazko laguntza eskaini beharra ikusten bada, arlo hau lantzeko ekimenak jarriko dira martxan, hala, ezagutzan nahikotasun mailarik ez dutenei -3. zirkuluko-; euren ezagutzan urratsak emateko laguntza emango diegu.

Arnasguneen *metodologiak hiru osagai* nagusi ditu; **bilerak**, **formazio saioak** eta **sentsibilizazio ekintzak**.

- **Bilerak.** Bileretan haxe egingo da funtsean.
 - Proiektuaren planifikazioa guztion artean adostu
 - Hizkuntza ohitura berria hiztun bakoitzarengan eta taldean finkatzeko hausnarketa eta norbere hizkuntza portaeren autokontrolera, autoerregulaziora eta autoebaluaziora iristea helburu duten trebatze ariketak.
 - Hartutako erabilera konpromisoei jarraipena
 - Proiektuaren balorazioa eta ekintza zuzentzaileak proposatu (hurrengo etapan garatuko direnak)

Bilerak egitea oso garrantzitsua da 2. fasearen 1. etapa honetan, eta oro har proiektu osoan zehar. Taldea gakoa dela esana dugu, eta hala da. Etapa honetako eta oro har proiektuko helburuak lortuko badira, taldeak talde izan behar du, eta horretarako taldeak elkartu egin behar du.

Helburuak finkatu, proiektuak martxa hartzen duenean berau baloratu eta behar bada birbideratu, hausnarketak egin, iritziak trukatu, konpromisoei jarraipena egin eta hizkuntza portaera berriak gudan errotu eta denboran betikotzea nahi badugu lankideekin hitz egin behar dugu honi guztiari buruz, eta horretarako elkartu egin beharko gara. Elkartzea ez ezik, zenbatean behin elkartzen garen ere oso inportantea da, gaiak gehiago eta sakonago lantzeko aukera izango baitugu erraz elkar bagaitezke. Bilerak egitea hain erraza ez den kasuetan (zuzeneko langileen arnasguneak,...) parte hartzaileekin banaka egoteko bidea erabili beharko dugu, parte hartzaileekin sarri-sarri egotea komeni da hauek haririk galdu ez dezaten. Lan hori teknikariak eta Euskara Batzordeko kideek egingo dute, ahal bada elkarrekin.

Ez gara bileren maiztasuna proposatzen ausartzen (gune bakoitzetik bestera elkartzeko aukerak ezberdinak baitira), dena den, garrantzitsua iruditzen zaigu bilera batetik bestera tarte handirik pasatzen ez uztea, proiektuari jarraikortasunik ematen ez bazaio ez baitu behar duen abiadurarik hartuko, eta bertan behera geratzeko arriskua izango du.

- **Formazio saioak:** Jada 1.fasean deskribatua dugu Euskara Batzordeetako kideek zein eratako formazioa jasoko duten. 2. fase honetan, 1.fasean ikusi eta ikasi dutena ekarriko dute teknikariak eta Euskara Batzordeetako kideak. Arnasgune bakoitzaren ezaugarrietara egokitu beharko da bai formazioaren edukia eta baita hau emateko modua ere. Formazioa 1. eta 2. zirkuluetakoei begira bakarrik presta daiteke, edota landu nahi den gaiaren arabera 3. zirkulukoek ere parte hartuko dute. Etapa honetan oraindik teknikariak izango du formazio honen ardura nagusia, dena den, Euskara Batzordeetako kideak ere izan behar dute hitza, hasieratik bertatik bada, hobeto.
- **Sentsibilizazio ekintzak:** Bilera eta formazio saioen osagarri dira eta batez ere hartutako konpromisoak gogorarazteko egiten dira, hau da, sua pizturik mantentzeko. Bileren arteko zubi dira ekintza hauek, beste era batera esanda, taldeak nahiz taldeko kide bakoitzak modu sistematikoan jasoko dituen motibazio tantak dira.

Lehen etaparen hasieran kanpotik iritsiko zaizkie tanta hauek, teknikariak hartuko du taldea eta kide bakoitza “elikatze” ardura. Hala ere, etapak aurrera egin ahala, taldetik bertatik jarriko dira martxan ekintzok, Euskara Batzordeetako kideek har dezakete adibidez ardura hau, baina baita taldeko beste batzuek ere. Lehen etapa honetako ekintzak izan daitezke; email bidez mezuak, mahai gainekoak, txarteltxoak, asteko hitza horman jarri, hiztegi pertsonalizatuak, egunero esaten ditudan espresioak euskaraz (3.zirkulukoentzat), “euskararen lekukoa pasa” lanpostuko laguntza,

- **Parte hartzaileen egitekoak:** Parte hartzaileek proiektuan izango duten egitekoa oso ezberdina izango da segun eta zein zirkulutan dagoen bakoitza, -ikusi dugu hori horrela dela etaparen helburuari begira ere-, alegia, erabileratik tira egiteko orduan erantzukizun maila ezberdina du bakoitzak, hori bai, gutxi-asko denek egin behar dute tira, 3. zirkulukoek salbu.

Beste era batera esanda, gunea trinkotzearen ardura nagusia erdigunean daudenena (1.eta 2. zirkuluak) bada ere, ez etapa honetan eta ezta hurrengoetan ere, euskararen sentsibilizazioaren gaia lantzerako orduan ez da ezberdintasunik egingo batzuen eta besteen artean. Bileretan parte hartzeko orduan adibidez guneko lankide guztiek elkarrekin parte hartzea proposatzen dugu bereziki motibazioaren gaia landu behar bada.

Egia da hala ere, beti guztiok zertan elkartu ez dagoela. Talde helburuen indargarri izan daiteke adibidez, tarteka arnasmunea edo muina osatzen dutenak bakarrik elkartzea, besteak beste eurek proiektuan egin beharreko trakzio lana dela eta izan ditzaketen zalantzak argitu eta azken finean muin hori indartsu mantentzeko. Garrantzitsua da jakitea bakoitzari zer eskatzen zaion, beraz. Hala, nahiz eta bilera batzuetara deitu ez, guztiak izan behar ditugu urrats guztiez informatuta, informazioak eta motibazioaren lanketak izan behar du adibidez 1. eta 2. zirkuluetatik 3.erako zubia, hau da batzuk zein besteak elkartuko dituen.

- **Teknikaria:** Garrantzitsua da gainerako parte hartzaileek zein egiteko izango duten zehazten denean teknikariak ere etapa honetan, eta oro har proiektu osoan zehar, zein egiteko izango duen argi uztea. Funtsean eta lehen etapa honetan batez ere, teknikaria izango da aldaketa eragitera datorrena, eta gune horretako langileak izango dira aldaketa

hori jasoko dutenak (Unanue, 2006), dena den inplikazioak denena behar du. Nahiz eta lehen etapa honetan aldaketa-eragilea izango den paper aktiboena hartuko duena, jada etaparen bukaera alderako eta zer esanik ez hurrengo etapetan, hasiera batean aldaketa-jasotzaile zirenak eragile izatera pasa beharko dira, batez ere sentsibilizazio ekintzak proposatu, burutu eta taldearen motibazioa indartzeko lanetan.

Planifikazioaren aldi hau arnasgunearen proiektua publiko eginda amaituko da. Behin deskribatutako urratsak eman ditugunean, guneko ohar taula erabilita arnasgunearen berri emango dugu. Modu orokorrean proiektuak zein helburu duen esango dugu, 47. orrikoa moduko argazki orokor bat erabiliko dugu horretarako. Gunean bertan bakarrik ez, komeni da taldearekin lan harremana duen beste sail, planta edo bulego batzuetan ere hasiera eman diogun proiektuaren berri zabaltzea, aurrerago, 3. fasean, inguruko guneetan ere martxan jarriko diren arnasguneekin ere lan egin beharko baitugu.

8.3.3. P/D/C/A

Hurrengo aldi honetako egitekoa izango da aurreko etapan zehaztutako metodologia martxan jartzea. Deskribatzen ari garen etaparen urtebeteko ibilbidea osatzeko garrantzitsua izango da motibazioa, erabilera eta ezagutza lantzeko garatuko ditugun eduki eta ekimenak proportzio egokian konbinatzea.

Proiektuan izango duten pisuari dagokionez, gure proposamena da motibazioa eta sentsibilizazioa izatea nolabait esatearren “gehien” landuko direnak, hala, besteak beste 3. zirkulukoekin ere lan egiteko aukera gehiago izango baitugu. Erabilera izango da landu eta zainduko den hurrengo arloa, konpromisoei jarraipena egin eta berauek betetzeko moduak landuz. Bukatzeko, ezagutza ere landuko dela esan behar da, hori bai, hau zuzenean barik zeharka landuko da. Ezagutzari ez diogu motibazioari eta erabilerari adinako pisurik emango proiektuan, erabileratik abiatuta eta motibazioa landuz trinkotu nahi baitugu gunea. Erabilera helburuak lortzeko bitarteko moduan ulertu nahi dugu ezagutza, hau da, helburu horiek lortzeko ezagutza lantzeko ekimen zehatzen bat egin beharra ikusten bada, orduan erabakiko da arlo hau nola landu.

❑ **Metodologia aplikatu: ekintzak eta konpromisoak**

Metodologiaren hiru osagaiak ere, hau da, bilerak, formazio saioak eta sentsibilizazio ekintzak, modu eta proportzio egokian konbinatu behar ditugu, beti ere epeetan eta helburuen jarraipenean konstanteak izanez.

Bileretan egingo diren ariketen, formazio saioen eta sentsibilizazio ekintzen adibide batzuk lanaren atzeko eranskinetan jaso ditugu, deskribatzen ari garen etapa honetan aplikatzeko modukoak izan daitezkeenak. Hurrengo lerroetan eranskinei egingo diegu erreferentzia, baina ez gara ariketa bakoitzak azaltzen hasiko, uste baitugu eranskinak kontsultatuta erraz ikusten dela bakoitzaren helburua zein den. Bileretan lantzekoak diren, formazio saioak diren ala sentsibilizazio ekintzak diren, multzokatuta aurkeztuko ditugu eranskinak.

Formazio saioak: **IKUSI 1. eta 2.ERANSKINAK (formazio saioak)**

Bilerak:

- Hizkuntza ohitura berria hiztun bakoitzarengan eta taldean finkatzeko hausnarketa ariketak eta norbere hizkuntza portaeren autokontrolera, autoerregulaziora eta autoebaluaziora iristea helburu duten trebatze ariketak.

IKUSI 3.ERANSKINA (ariketa)

IKUSI 4.ERANSKINA (ariketa)

IKUSI 5.ERANSKINA (ariketa)

Sentsibilizazio ekintzak:

IKUSI 6.ERANSKINA (idatzizkoan eragiteko)

IKUSI 7.ERANSKINA (asteko hitza)

IKUSI 8.ERANSKINA (mahai gaineko txartelak)

IKUSI 9.ERANSKINA (ohar tauletako kartelak)

IKUSI 10.ERANSKINA (mezuak emailaz)

IKUSI 11.ERANSKINA (idatzizkoan eragiteko)

Formazio saioak direla, sentsibilizazio ekintzak direla edota bileretako lanketak direla, oso garrantzitsua da egiten diren ekintza guztiek taldean eta norberarengan zer eragin izan duten komentatzea. Sentsibilizazio ekintza bat egin bada adibidez,

bakarka parte hartzaileekin egonda edo elkartzen garen hurrengo bileran, jaso egin behar dira ekintzak sortu dituen iritziak; “polita izan da”, “ados nago tokatu zaidan txarteltxoak dioenarekin”, “zer pentsatua eman dit”, “txartelak dioenak lehen hain kontziente ez nintzen nire portaera batez jabetzen lagundu dit”, “nik banekien hori baina norbaitek gogorarazi beharra izaten dut”,...

Ekintza batzuk besteak baino eraginkorragoak izango dira, egokiagoak, baina guztiek dute atzean arrazoi bat, helburu bat, eta hori oso argi izan behar dugu denok. Egindako ekintzei buruz ezer esaten ez bada, ekintzak itxi gabe geratzen dira eta ez dugu jakingo zer lortu den edota zer ez, hau da, ezingo dugu jakin aurrera goazen ala ez. Taldean denok behar dugu denon feedbacka aurrera egiteko.

Bilerak hasten ditugunean adibidez, ona da azken bileran esandakoen edo hartutako erabakien laburpen txiki bat egitea, lotu egin behar dira bilerak aurreko bilerekin edo adibidez azken sentsibilizazio ekintza edo formazio saioetan esandakoak berriro aipatuz, egiten ari garen bidea ikusi egin behar dute parte hartzaileek, jakin egin behar dugu nondik gatozen (zer egin dugun eta zertarako) eta nora goazen (zer egingo dugun eta zertarako), modu honetan lortuko dugu alde batetik denon artean finkatu dugun iparrari eustea eta bestetik parte hartzaileen inplikazio handiagoa proiektuarekin.

❑ **Portaera irizpideak finkatu**

Eranskinetan jasotzen diren ekintza guztiek helburu argia dute, norbere eta talde mailako portaera irizpideak finkatu behar dira. Taldean aztertuko da alde batetik zer eginda lortzen dugun jarritako helburura gerturatzea eta beste alde batetik zerk urruntzen gaituen bertatik. Helburura gerturatzen gaituela uste dugun hori praktikan jarri beharra dago (Unanue, 2006, 134). Zerbait zehatza izan daiteke, praktikoa, edota bestela zerbait sinbolikoa, keinu bat. Adibide batzuk: “figura bat jarri dut ordenagailu gainean nire konpromisoak gogorarazteko”, “asteazken eguerdian eta arratsaldean bost minutu hartu eta egunean zehar eguneko nire hizkuntza portaera aztertzen dut, norekin eta nola hitz egin dudana aztertzen dut”, “hitz bat ulertzen ez badut hiztegian begiratzen dut eta gero gure hiztegian sartzen dut”, “bilera batera noanean ingurukoei begiratzen diet eta euskaraz zenbat egin daitekeen baloratzen dut”, “ahalegina egiten dut arnasguneen bileretara joateko”, “itxaron gela eta tabernetan euskarazko eta gaztelarazko egunkaria badaude, euskarazkoa begiratzen dut lehenengo”, “arbelean bileraren gai ordena idatzi behar badut, euskaraz idazten dut”, ...

8.3.4. P/D/C/A

❑ **Jarraipena / Neurketak**

Konpromisoei jarraipena egiteko aldia da hau. 2. fasearen 1. etapa honetan ahozko konpromisoak hartu direnez, horiexei egingo zaie jarraipena. Bi galderei erantzun behar zaie gai honetan.

1) nork egingo du jarraipena? 2) Nola egingo da jarraipena?

Bi galderei gauza berarekin erantzungo diegu. Hiru elementu ditugu, eta hirurak balia baliatuko ditugu jarraipena egiteko: teknikaria, taldea eta norbera.

Alde batetik teknikaria dago. Etapa hau fasearen hasierakoa denez, ondo dago teknikariak bere gain hartzea (bereziki taldea elkartzea zail denetan) ardura hau. Hala, konpromisoak hartu dituzten lankide-bikoteekin egon beharko du eta haien balorazioak jaso, konpromisoa bete duten, bete badute zerk lagundu dien horretan, eta ezezkoa bada zein izan daitekeen arrazoia, adostu zuten konpromisoa lorgarria den ere aztertu beharko dute, eta lortu ez badute ze laguntza beharko duten lortzeko.

Hau bera taldean ere egin daiteke, bilera bat horretara bideratuta. Posible bada bakarka egitea baino gomendagarriagoa da. Taldeak presio (helburua lortzeko laguntza) bat sortzen du banakoarengan, horregatik parte hartzaile bakoitzak taldean bere konpromisoen berri ematea inportantea da, konpartitzeak, norberarenak edo lankide-bikotearenak diren konpromisoak guztionak egiten dituelako, hau da, taldearen konpromiso ere bihurtzen dira nolabait. Gainera, konpromisoak bete badira taldearen errekonozimendua jasoko dute hiztunek eta bete ez badira, hauek betetzeko laguntza ere taldean aurkituko dute.

Hirugarren aukera norberak norbere konpromisoei jarraipena egitea izan daiteke. Ariketa hau oso interesgarria izan daiteke bakoitzak bere hizkuntza portaerak autokontrolatzen ikasteko, hau da, hiztunak garatu behar duen autonomia lantzeko.

Ariketa interesgarria (Unanue, 2006) eta oso erraza izan daiteke adibidez, honako hau; “Nolakoa izan da zure ahozko konpromisoen betetze maila? (Aukerak: Ona, Balekoa eta Eskasa). Adierazi arrazoiak. Ondoren bidali teknikariari idatzitakoa.” Ondoren, jarraipen pertsonal hau taldearenarekin osatu egin liteke.

Etaparen urtebetekoa dela kontuan izanda, konpromisoen jarraipena gutxienez urtearen erdi aldera eta bukaera aldera egitea proposatzen dugu, ez dugu gehiagotan horretara jarri beharrik ikusten, izan ere, urtean zehar izango ditugun

bileretan zeharka bada ere beti izaten baitira konpromisoak mintzagai, adibidez parte hartzaile bakoitzak proiektuan bere burua nola ikusten duen aipatzen duenean eta abar.

Ahozko jarduera informalak taldean gora egin duen jakiteko beste modu bat izan daiteke erabilera neurtzea gunean, kale neurketa egitea adibidez. Horretarako baina, komeni da etaparen hasieran adibidez neurketa bat egina izatea, konpromisoak hartu aurreko eta ondorengo datuak konparatu ahal izateko. Taldearen neurketa orokor hau behin eginda nahikoa dela uste dugu, etaparen (urtearen) bukaera aldera egingo genuke.

Garrantzitsua da konpromisoei jarraipena egiteaz gain, metodologia garatzen goazen neurrian honen balorazio bat ere egitea. Hau da, sentsibilizazio ekintza, formazio saio eta bileretako lanketen arteko oreka egokia den ala ez baloratu behar da. Azken finean interesatzen zaiguna da hiru osagaion arteko oreka eraginkorra izatea gure hizkuntza portaerak aldatzeari begira, beraz, zer egin dugun eta horrekin zer lortu den konparatuta, momentu bakoitzean hiru osagaietatik beharrezkoen zein dugun ikusi eta alderdi hori nola indartuko dugun aztertu beharko dugu taldean.

8.3.5. P/D/C/A

❑ **Ekintza zuzentzaileak**

Behin konpromisoei jarraipena egin ostean hauen betetze maila baloratu eta bete ez diren konpromisoak nola bete adostu beharko da taldean, konpromisoak lorgarriak diren hausnartuko da, birformulatu egin behar diren eta zer beharko dugun bete daitezen.

Ekintza zuzentzaile gisa horixe jasoko dugu, zer egingo dugun eta nola. Ekintza zuzentzaile horiek gauzatzeko modua izan daiteke adibidez portaera irizpide berriak adostea taldean. Irizpide berri hauek konpromisoak betetzen lagundu beharko dute, egokiak izan beharko dute beraz, eta hala diren jakiteko, jarraipena egin beharko zaie.

Portaera irizpide hauek indartzeko, proiektuaren metodologiak zein aukera ematen digun ikusiko dugu, hau da, baloratuko dugu metodologiaren zein osagaik (bilerak, formazioa, sentsibilizazio ekintzak) lagunduko digun ekintza zuzentzaileok betetzea.

P/D/C/A zikloaren azken aldia da hau, eta honenbestez amaituko litzateke 2. fasearen 1. etapa. Ekintza zuzentzaile hauek bat egingo dute 2. etapako helburuekin, hau da, idatzizko helburuekin eta batera landuko genituzke.

Galdera hau da oraingoan:


“zure lankide euskal hiztunei idazten diezunean, euskaraz idazten diezu?”

a) beti edo ia beti. b) batzuetan c) ez.

Hala, hasiko ginateke gune horretako idatzizko erabileraren diagnosia egin eta etapa berria planifikatzen, P/D/C/A zikloa berriro martxan jarritz.

8.4. 3. FASEARI BURUZKO OHARRAK

3. fasearen helburua gune ezberdinen artean hizkuntza komunitatea trinkotzea da. Lehenengo etapan ahozko helburuak landuko dira eta bigarreanean idatzizkoak, beti ere jardun informalekoak. Horretarako, gune ezberdinetakoak diren lankideen artean adostuko dira konpromisoak. Helburua da gune ezberdinen arteko sarea osatzea, edo beste era batera esanda, lehen gune jakin batera mugatzen zen arnasmunea beste gune batzuetakoekin batu eta denen artean arnasmune handiago bat osatzea.



Jada elkarren berri baduten arnasguneak harremanetan jartzea da kontua. Arnasgune bakoitzean jada 2.fasetik identifikatuak ditugu hiztun motak, badakigu nortzuk diren hiztun aktiboak, nortzuk hiztun ez hain aktiboak eta nortzuk nahikotasun mailarik ez dutenak. Horregatik, 3. fase honen helburu nagusiari begira *hiztun aktibo*ei adibidez, ez zaie aurreko fasean eskatzen ez zitzaien ezer eskatuko. Aurreko fasean hiztun aktiboek euren artean %100ean euskaraz egin eta ingurukoengan eragitea eskatzen zitzaien, orain ere horixe eskatzen zaie, baina euren gunekoekin ez ezik, inguruko beste gune batzuetakoekin ere hala jokatu beharko dute.

*Hiztun ez hain aktibo*ek ere lehen zuten egitekoa izango dute (ikusi 49.orrian), eta *nahikotasun mailarik ez duten*ekin, orain ere sentsibilizazio eta motibazioaren zubia baliatuko dugu, baina orain sail, gune edo planta ezberdinen artekoa.

Metodologiari dagokionez esan behar da 3. fasean ere ordura arteko berbera aplikatuko dela, hau da, orain ere formazio saioak, eta bilerak (etapak planifikatzeko, hizkuntza ohitura berriak errotzeko, konpromisoei jarraipena egiteko eta etaparen balorazioa egin eta ekintza zuzentzaileak garatzeko) eta sentsibilizazio ekintzak izango dira eta berriz ere P/D/C/A zikloa jarraituz egingo da hau.

Fase honek duen berezitasuna da orain eremu handiago batean aplikatu behar dela hau.

Guk uste dugu benetan funtsezkoak proiektuaren 1. eta 2. faseak direla, bata abiapuntua delako eta bestea, hortxe ikasi behar dutelako hiztunek euren hizkuntza portaerak autokontrolatzen.

3.fase honetara hiztunak trebatuta iritsiko dira, eta oraindik ere autokontrol horretan sakondu beharrik izango badute ere, nagusiki 1. eta 2. faseetan barneratutakoa gune ezberdinetako lankideen artean praktikara eraman beharko dute orain, praktika honen bitartez euren euskarazko hizkuntza portaera berria gero eta gehiago sendotuz eta gune zehatz batean barik, eurak doazen gune ezberdinetako lankideen artean euren eragina zabalduz.

Horregatik ba, metodologiari dagokionez, fase honetan hiru osagaiak (formazio saioak, bilerak eta sentsibilizazio ekintzak) nola landuko diren erabaki egin behar da.

Aukera batzuk hauek izan daitezke:

❑ **Sentsibilizazio ekintzak**

- Guztientzat egingo dira, hauek egiteko ardura txandakatu egin daiteke guneka

❑ **Bilerak**

- Gune ezberdinetako lankideen artean zenbaterainoko harreman pertsonala eta lan harremana dagoen aztertzea komeni da. Hau da, ikusiko dugu lanagatik edo bestela harremana dutelako elkartu ohi den jendea / guneak diren, hala bada arnasmuneen proiektua fase honetan garatzeko bilerak egingo ditugu.
- Gune ezberdinen artean erabilera hitzarmenak egin daitezke

❑ **Formazio saioak**

- Ahalik eta lan harreman naturala edo gehien duten guneetako arnasmuneak elkartu eta elkarrentzako saioak antolatu daitezke
- Saio masiboak antolatu litezke, apur bat helburu guztiak betetzeko helburuarekin: motibatu, konpromisoak berretsi, ...

Fase honetan teknikariaren presentzia ez da hainbestekoa izango. Teknikariak fasearen planifikazio eta jarraipen lanetan parte hartuko du eta bere laguntza eskaini. Benetako ardura izango dutenak arnasmuneetako erdiguneetako Euskara Batzordeetako kideak izango dira, hauek apurka-apurka teknikariaren lekua hartuz joango dira. Teknikariaren lekua hartuko dutenak erreferente izango dira euren guneetan, eta fase honetan euren heziketa osatuko dute hala izan daitezen. Ardura nagusia hauena izango da. Euren egitekoa izango da gune ezberdinen arteko konpromisoak bete daitezen elikatu beharreko motibazioaren sua elikatzea, horretarako euren lankideen inplikazioa lortuz.

Argi dago baina, behin fase guztiak agortuta ere lortutako trinkotze mailak atzera bueltarik izan ez dezan honi guztiari jarraipena eman behar zaiola, ezin duela hasitako bideak etenik izan. Horretarako funtsezkoa da gaian inplikaturik dauden arteko loturak sendoak izatea, alde batetik arnasmuneak martxan jarri ziren guneetan helburuak lortu edo helburuei eusteko dinamikak martxan egon behar du. Gainera, erakundearen eta Euskara Batzordeen arteko lankidetzak egon egin behar du, atzera urratsik egin ez dadin hartutako konpromisoak tinkoa izan behar du.

9. ARNASGUNEEN BALORAZIOA

Oraindik ere bere hastapenetan den proiektua da arnasguneena Fagor Ederlanen, lanaren hasieran ere hala genioen.

Euskaraz lan egin ahal izateko aukera benetakoa izan dadin, eta euskaraz lan egingo duten pertsona eta guneak indartzea helburu hartuta, hizkuntza komunitatea trinkotzearen gaia Euskara Batzordeetako kideekin batera lantzen hasi ginen lehenengo. Aurrerago, bidea egiten hasi egin behar genuela eta, gaiaren inguruko ezagutza apur bat, baina batez ere intuizioak eta gogoak bultzatuta, jendeari arnasguneetan parte hartu zezan egin genion gonbita.

Hala hasi ginen arnasguneen lehen bilerak egiten. 2006an hasita, negozio ezberdinetan martxan izan genituen edo gaur egun martxan ditugun arnasguneek asko irakatsi digute eta ziur gaude ikasitakoak aurrera egiten lagunduko digula.

Arnasguneen orain arteko esperientzia oso positiboa izan da, batetik Ederlaneko jendeak (batez ere Euskara Batzordeetako kideek) hizkuntza komunitatea trinkotzearen gaia lantzeko eta barneratzeko balio izan digulako, bestetik, Euskara Batzordeetako kideez gain, euskara plana urrunagotik bizi duten langileek ere aukera izan dute euskara planean modu zuzenago batean parte hartzeko.

Eta batzuetan iso eta besteetan arre, azkenerako bidetxoa egin dugu. Proiektu hau nola garatuko den eta bakoitzak proiektu honetan zein egiteko izan behar duen argitu dugu, hemendik aurrera egin beharreko bidearen oinarriak ezarri ditugula uste dugu, horrenbestez.

Oinarriak jartzeko bidea izan da hortaz, orain artekoa, horregatik uste dugu goizegi dela oraindik arnasguneek praktikan ze aldaketa eragin duten esateko. Arnasguneen inguruan edo hauei esker Ederlanen momentuz eman den urrats nabarmenena da lortu dugula langileek euskaraz lan egiteari buruz edo lan egiteko aukera izateari buruz elkarrekin hitz egitea, edo hitz egiten hastea. Hau da, arnasguneak martxan jarrita sistema edo sare bat jarri dugu martxan eta uste dugu sistema hori egokia dela parte hartu nahi duten langile guztiek helburu hori lortzeko beren ekarpenak egin eta konpromiso partikular eta kolektiboak hartzeko.

Egia da kasu partikularrak gogora ekartzen hasita jendeak aitortzen duela lortu dutela aldaketatxo bat ematea euren hizkuntza portaeratan, hau da, batarekin edo bestearekin orain gehiagotan egiten dutela euskaraz, hain zaila ere ez zaiela egin kasu batzuetan,.... kasu partikular hauetan guztietan azpimarratu behar da hori hala izan dadin proiektu honetan taldeak duen garrantzia, alegia, bestela nekez edo lan guztia norberak eginda lortu beharko zuena, frogatu dugu errazago lortzen dela konpromisoak eta hizkuntza portaerak taldean eta honen babesean hartzen direnean. Hori bai, ikusten dugu baita hizkuntza portaera berri horiek eguneroko bihurtu daitezen proiektu honek jarraikortasuna izan eta konstantzia eskatzen duela, bestela hiztunak berriro ere lehengo ohituretara bueltatzeko arriskua baitago.

Hizkuntza komunitatea trinkotzeko bidean urratsik eman bada oso txikia izan da oraindik, hala, uste dugu euskararen erabilera orokorrari dagokionez ere goizegi dela baloraziorik aurreratzeko.

Oso modu positiboan baloratu behar da formazio saioen bidez, bileretako hausnarketa/ariketa eta sentsibilizazio ekintzatxoek bidez lortutakoa. Ikusten dugu honek guztiak eragiten duela langileen euskararekiko sentsibilizazioan, eta apurka-apurka ari garela arnasguneen bidez Ederlaneko euskal hiztunak hiztun oso egiteko bidean urratsak ematen. Egun inoiz baino trinkoagoa da euskara planaren muina dei dezakeguna edo Euskara Batzordeetako kideek osatzen duten sarea, trinkoa da hedadura eta egitura aldetik baina baita ere sentsibilizazio aldetik ere, inoiz baino prestatuago daude arnasguneekin lortu nahi den aldaketa horretan eragile izateko.

Euskararen gaia lantzeko sistema bat antolatu dugula esan dezakegu, eta iruditzen zaigu sistema horrek aukera ematen diola arnasguneetan parte hartu nahi duen edonori euskararen gaiaz lankideekin hitz egiteko.

Hori urrats handia da, eta hala baloratzen dugu, ikusten baitugu proiektu honetan euskarak batzen dituela langile guztiak, izan euskal hiztuna ala erdal hiztuna, belaunaldi ezberdinetako jendea, euskararen gaian inplikaturik edota indiferentziaz jokatzeko duena, denek dute euren iritzia eman eta parte hartzeko aukera, eta baita arnasguneen helburuarekin konprometitzekoa ere.

9.1. ARNASGUNEEN INDARGUNEAK

Orain arteko esperientzia kontuan izanda, gure ustez arnasguneen indarguneak direnak batu ditugu hemen. Tartean dira batetik metodologiari dagokionez arnasguneek dituzten indarguneak, eta bestetik, gure ustez euskara planari arnasguneek ze ekarpen egiten dioten.

- ❑ Batu egiten du, eta ez banatu: hizkuntza komunitate bakoitzak, bereari uko egin gabe, besteari balioak errespetatu eta elkarrengana hurbiltzen laguntzen dute.
- ❑ Euskara planean parte hartzea nahi duten guztiengana zabaltzea ahalbidetzen du.
- ❑ Helburuak eta konpromisoak modu progresiboan lantzeko aukera ematen du.
- ❑ Helburuak taldean lantzeak indartu egiten du proiektua.
- ❑ Normalean gune fisiko bera (bulegoa, planta, txanda, ...) konpartitzen duten lankideen artean ez ezik, gune fisikorik ez baina lan harremana duten lankideen artean ere jar litezke arnasguneak martxan (sail bereko lankideak izan baina planta ezberdinetan lan egiten dutenak, bulego ezberdinetakoak,...)

- ❑ Borondatezkoa da bertan parte hartzea.
- ❑ Hitzun motaren arabera eta bere hizkuntza konpetentzia kontuan izanda, hitzun bakoitzak norbere neurriko konpromisoak hartzeko aukera du.
- ❑ Hitzun talde ezberdinek helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egiten dute
- ❑ Arnasguneen proiektua egokia da perfil ezberdineko jendearekin martxan jartzeko orduan; bulegoetakoak, plantatakoak, zuzendaritza, arduradunak,...
- ❑ Euskara Planean eragile diren pertsonak identifikatzen laguntzen du
- ❑ Arnasguneen eragina ez da arnasgunera mugatzen, hitzuna doan leku orotara zabaltzen da arnasguneen eragina.
- ❑ Euskara Planaren komunikaziorako sare egokia izan daiteke, baita Euskara Plana indartzeko ideiak biltzeko ere.
- ❑ Arnasguneen proiektuan bestelako helburuak uztartu ere litezke. Adibidez idatzizko helburuak lantzen direnean dokumentazioa euskaratzeko plana egin daiteke, ...
- ❑ Metodologia gune ezberdinetako errealitatera egokitu daiteke. Gune horren abiapuntua (trinkotasuna) zenbatekoa den, luzeagoa ala laburragoa izango da helburura iristeko egin beharreko ibilbidea. Taldeak erabakiko du zein etapa lantzetik hasiko diren.
- ❑ Metodologia malgua da. Etapa bakoitzak helburu bat du, ahozkoa ala idatzizkoa. Hala ere, egingarria ikusiko balitz, proiektua martxan jartzean erabaki beharko da lehenengo urtean helburu batzuk eta hurrengoan besteak landuko diren, ala batera ere landu daitezkeen.

Arnasguneak kudeatzeko orduan bereziki zaindu beharreko alderdiak bi dira. Bata da lehendik ere esana dugun jarraikortasunarena, alegia konstanteak eta sistematikoak izan behar dugula metodologia aplikatzerako orduan. Bilerak, formazio saio eta sentsibilizazio ekintzei taldearen hizkuntza portaeretan eragiteko besteko jarraikortasuna eman behar zaie, ekintzak bata bestearekin uztartuz. Ezin da epe luzerik pasatzen utzi ekintza batetik bestera.

Bestea da oso ondo kalkulatu behar dugula zenbat arnasgune jarriko ditugun martxan eta non. Arnasguneek euren gainean egotea eskatzen dute, batez ere proiektuaren lehen bi faseetan, horregatik komeni da gure indarrak ondo neurtzea, bestela, arnasguneak kontrolik gabe martxan jarritz gero ez dugu hauei jarraipen egokia egiteko modurik izango.

9.2. DENA EZ DA ARNASGUNE

Bukatzeko esan behar dugu dena ez dela arnasgune. Arnasguneetan gauza asko batzen dira; batetik hiztunek hartzen dituzten konpromisoak daude, bestetik formazio saioak ere badaude, eta baita euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko ekintzak ere.

Gune batean ahozko konpromisoak hartu direla eta, ezin dugu esan arnasgune bat martxan jarri dugunik, edo talde bati formazio saio bat eman eta ondoren handik sentsibilizazio ekintzak egitea erabaki badugu ezin esan dezakegu esan hori ere arnasgune bat denik.

Esan nahi duguna da arnasguneek helburu nagusi bat dutela atzetik, proiektuak metodologia bat dauka, etapa bakoitzak bere helburua eta egin beharreko bide bat, P/D/C/A zikloaren arabera eman beharreko urrats batzuk,...hau da, proiektu bat den neurrian hasiera eta bukaera behar dute arnasguneek eta bien bitartean hasiera hori bukaerarekin lotuko duen jarraikortasuna eskatzen du, hemen zehaztutako urratsak jarraituz.

9.3. HORIXE BA

Arnasguneen bileretako batean askotan komentatu izan dugun gai bati bueltaka genbiltzan berriro ere. Askotan entzundako ideia bat zebilen mahaian, atzera eta aurrera.

- Eske oso zaila da ohitturak aldaketia, zuk beti ein badozu pertsona batekin erderaz,...
- Bai, eske hori da e, ohitturia da dana. Nik adibidez honekin sekula ez dot erderaz egingo beti egin dogulako euskeraz. Baina beste batekin igual ba bai. –gehitu zion ondokoak
- ...klaro, zela hasiko zara derrepente pertsona batekin euskaraz sekula egin ez badozu?! – berriro lehengoak.

Isilik zegoen batek bota zuen hormarena.

- Ohitturia da horma bat. Zu bazoiaz zure bidian eta tapa hormia parian. Eta pasatu gura dozu beste aldera baina ezin dozu. Eta orduan zer?... ba hartzen dozu porria ta hasten zara zure indar danakin hormia bota guran, baina ezin dozu. Eta halako baten konturaketan zara hormiak kriston zulua aukela hantxe bertan, zeure ondo-onduan, baina zu ez zara konturatu. Ba bai, ba horixe da ohitturia niretako. Baina badakitue zein dan kontua? –jarraitu zuen–, ba kontua da normalian hormia ez dala hor kanpuan egoten, gure barruan egoten dala.

Horixe ba.

10. BIBLIOGRAFIA

- Jauregi, P. (1998): *Berezko taldeak euskalduntzeko estrategiak*. Doktorego Tesiak Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea. In: UNANUE, A (2006): *Administrazioko atal elebidunetan langileen hizkuntza ohituretan eragiteko plana*. Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea. Lasarte-Oria.
- Emun Koop, E. (2007) *Euskara Hutsez Funtzionatzeko Aukerak* eskuliburua. Arrasate
- Unanue, A. (2006): *Administrazioko atal elebidunetan langileen hizkuntza ohituretan eragiteko plana*. Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea. Lasarte-Oria.
- Arrutil, I. (2007) *Hizkuntza plangintza udalerri mailan*. HIZNET. 21.ikasgaia.
- Etxegoien, J.C "Xamar". (2001) *Orekan: herri eta hizkuntzen ekologiak*. Pamiela. Iruñea
- Zalbide, M eta Erize, X. (2007) *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET. 3.ikasgaia.
- Suay i Lerma, Ferran. Sanginés Sáiz, Gemma (2005) *Un espai per als parlants d'una llengua*. Llengua i ús 34. zenb. 27-39 orr.
- Sanchez Carrión, J.M "Txepetx" (1987) *Un futuro para nuestro pasado* . Egilearen argitalpena. Donostia. In ZALBIDE, M eta ERIZE, X. (2007) *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET. 3.ikasgaia.
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza politikarako sailordetza (1995). *Euskararen jarraipena*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. In Arruti, I. (2007) *Hizkuntza plangintza udalerri mailan*. HIZNET. 21.ikasgaia.

11. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

GIDOIA (lankideak bileran)

Mikel: (euskaldun kontsekuentea eta eragilea). Euskara Batzordeko kidea. Euskaldunekin beti euskaraz. Beti aztertzen du euskaraz egiteko zein aukera dagoen. Euskaraz egiteko aukerak sortu egin behar direla dio.

Iker: (euskaldun kontsekuentea eta eragilea). Euskara Batzordeko kidea. Euskaldunekin beti euskaraz. Beti aztertzen du euskaraz egiteko zein aukera dagoen. Euskaraz egiteko aukerak sortu egin behar direla dio.

Raul: (euskaldun epela). Jakin badakien arren ez du erabiltzen, edo oso gutxi. (Indiferentea). Bileran euskaraz ez dakien pertsona bat dago eta gaizki iruditzen zaio euskaraz egitea, ez da eroso sentitzen. Berak gazteleraz egiten du.

Elena: (Euskaldun borondatetsua) Nahi du,... baina ez du ahal duen guztietan euskaraz egiten) Bileraren arduraduna da, hizkuntza batetik bestera saltoka ibiltzen da. Bileran "denen gustua egin nahi du" eta erdal hiztunak gazteleraz egiteko eskatzen dionean halaxe egiten du. Bilera euskaraz egiteko euskal hiztunen babesa duela ikusten duenean euskaraz jarraitzen du.

Alberto: (erdal hiztuna). Apur bat ulertzen du, baina ez da euskaraz egiteko gauza.

Arrate: ("euskaldunberri" saiatua eta ausarta, eragilea). Gaztelerara pasa den elkarrizketa euskaraz jarraitzeko ahalegina berak egiten du.

Alberto bilera gelako mahaian eserita dago, jendea bilerara noiz sartuko zain. Badatoz lehenengoak, Iker eta Mikel. Euskaraz ari dira euren artean, asteburuko kontuez, gogotsu.

Mikel: ... eta zer jauan ba tabernie ordu hortan, zabalik ala?

Iker: ... bai, bai, guk alde ein gaixuan 04:30etan edo, eta ondio zabalik geratu zuen.

Mikel: ... eta zer moduz?

Iker: ba, afai hasieran nahikue soso egin gitzuan dano(k)pe. Bañe gero fan gitzuan animauaz

Mikel: ... bai, bai, hori hola izeten dok, ...hasieran betik kostetan dok apur bat, bañe gero hasten haz arda apur bat eraten,...eta bueno,...

Iker: ... azkenien kantu baten akabau gaixuan!!

Mikel: ya,ya, pentsetan juat, kalia gora-kalia behera,...

Mahaira hurbilduz doaz apurka-apurka, berba eta berba jarraitzen duten bitartean. Mahaira iritsi eta esertzera doazela Alberto agurtzen dute.

Mikel: epa Alberto

Alberto: epa, bai.

Iker: Ondo?

Alberto:...bueno. Ya sabes,... un poco de lunes.

Mikel Ikerri begira jarri eta asteburukoaz berbetan jarraitzen dute.

Mikel: Txarli fan zuan afaire?

Iker: jode fan zala. Kriston legatza harrapau juan! Azkenien Etxabek eta bixok eruan gaixuan etxera.

Elena, Raul eta Arrate sartzen dira. Presaka datoz, berandu da eta. Elena (bileraren arduraduna) mahaiaren presidentziara doa zuzen, eta Raul eta Arrate besteen ondoan esertzen dira, lankideak agurtuz. Elenak trasteak mahaian utzi eta koadernoak zabaltzen duen bitartean,...

Elena: egunon danoi, ... barkatu e berandutu ein jat eta. Bueno, azkar-azkar eingo dou. Danok gauz?

Iker: Ez, Miren falta da.

Elena: A bai. Ez, Miren gaur ez da etorriko, jai eskatuta dauko eta. Bueno, bale. Hasi eingo gara. Bueno. Lenengo aurreko batzarrian hartutako konpromisoak errepasauko dittugu. Ados? Bueno, hor punturik inportantiena daukou 1600 makinia. Gaindukua. Zela dau hori kontuori?

Alberto: ...por favor, en castellano que no entiendo bien.

Isilune bat sortzen da. Mikel eta Ikerrek elkarri begiratzen diote. Arrate eta Raulek Elenari,... ea nondik irteten duen jakin nahian bezala.

Elena: ...mmmmm . bien. Vale. No, pues decía que teníamos para hacer el seguimiento al tema de la maquina 1600. Preguntaba haber cómo estaba el tema. ¿Se ha hecho algo desde la última reunión? Quedamos en que teníamos que quedar con Gaindu para la puesta a punto.

Arratek Mikel eta Ikerri begiratzen die eta besteek entzuteko moduan esaten du:

Arrate: hori egin genuen, ezta? ...Bai, aurreko astean.

Elena: ¿...está hecho entonces? Eginda dau Arrate? Eta zer esaten dau Gainduk?

Arrate: ba kostea guk asumitu behar dugula. Dena, hau da, el 100%.

Mikel eta Iker: Zer!!? kostea guk asumitu!!??

Raul: Hombre, si me dices que es parte del coste, yo que sé, la mitad,...pues bueno, pues igual si,... pero el %100 me parece una pasada. Yo les diría que ni pensar.

Alberto: ya, igual si es la mitad,...

Mikel: ez, ez Raul. Erdixe be ez. Guk ez daukou hori zertan ordaindu.

Elena: bueno aber. Nik be uste dot guk ez daukogula zertan kostie asumiru. Gainera hori plieguetan edo kontratuen edo egongo da jasota, ala?... bueno ba lehenengo ein bihar dogune da enterau kontratuen zer jarten dauen,... baina argi euki guk ez dogula ezer ordainduko, ez erdixa eta ez %100a. Raul, mesedez, begiratu kontratuetan zer jarri gauen, bale?....

Bueno, eingo dou aurrera? Aber,... 1700 makinie. 1700 makinein akastune zenbatekue izen da hil hontan?

GALDERAK:

1) Gu bilerako gidaria izanda nola jokatu genuke? Ze aukera daude?

Aukerak	Zer lortuko genuke? Ze sentsazioekin
geratuko ginateke?	

1.aukera:

2.aukera:

3.aukera:

...

2) Gu bilerako kide izango bagina nola jokatu genuke? Ze aukera daude?

Aukerak	Zer lortuko genuke? Ze sentsazioekin
geratuko ginateke?	

1.aukera:

2.aukera:

3.aukera:

GIDOIA (lankideak bulegoan)

Maika: euskara ikasten ari da. Euskal hiztunekin ez da hitz egiten ausartzen (borondatetsua).

Jokin: euskaldun *epela*. Jakin badakien arren ez du erabiltzen. Euskara Batzordeko kidea da (Indiferentea).

Mila: euskaldun kontsekuentea, Euskara Batzordeko kidea (eragilea).

Pello: euskaldunberri saiatua eta ausarta (eragilea).

Idoia: euskalduna, hizkuntza batetik bestera saltoka hitz egiten duena (borondatetsua).

SARRERA: bost pertsona hauek sail bereko lankide dira. Lan kontuetaz dihardute.

Maika (telefonoz ari da): *bueno, bueno... ese no es mi trabajo, ese es un tema de los mandos; son ellos los que tienen que comunicar este tema.*

Es que es la repera, Jokin, todos piensan que soy su niñera.

Jokin: *¿Y qué quieren ahora?*

Maika: *Pues que el fin de semana que viene, el del puente, tienen que venir a trabajar y quiere que les diga yo.*

Mila: *Aizu, Jokin, prest al duzu biharko bilerako txostena. Dokumentazioa prestatzen ari naiz eta zure txostena falta dut.*

Jokin: *Bai ia-ia egin dut. Sólo me falta el último punto.*

Mila (Erritmoa aldatu eta poliki hitz eginez): *Eta zuk Maika, ahal baduzu, lehengo hileko datuak pasatu eguerdirako.*

Maika: *Bai, Mila, laster-laster nik emango.*

Pello: *Fotokopiagailuan badakixu nola ateratzen "a doble cara"?*

Idoia: *Beti berdin Pello. ¡Ven aquí y escucha atento para la próxima vez, ganorabako que eres un ganorabako!*

Mila, *¿mi txostena te pongo en intranet?*

Mila: *Bai, zintzilikatu mesedez sarean. Pello, ateraizkidazu mesedez fotokopia hauek.*

Pello: *bai, Mila, ekarri. Ni ya bihurtu naiz experto en fotocopias.*

Eta aizue, zuek eman niri hurrengo hileko prebisinoak, pedido egiteko.

Idoia: *Ah bai, nik behar dut koaderno bat, bonito eh, que es para las reuniones con el jefe.*

1 LANTALDEA

EZTABAIDA LAGUNTZEKO GALDERAK:

1. Geure burua zein pertsonaiarekin identifikatzen dugu?
2. Euskara Planari begira, nork egiten dio mesederik handiena?
3. Zerbait egin dezakegu guk besteen jokaeran eragiteko? Zer eta nola egingo genuke?
4. Euskararen erabilera handitzeko, nola eragin dezakegu Maikarengan?

2 LANTALDEA

EZTABAIDA LAGUNTZEKO GALDERAK:

1. Geure burua zein pertsonaiarekin identifikatzen dugu?
2. Euskara Planari begira, nork egiten dio mesederik handiena?
3. Zerbait egin dezakegu guk besteen jokaeran eragiteko? Zer eta nola egingo genuke?
4. Euskararen erabilera handitzeko, nola eragin dezakegu Jokinengan?

3 LANTALDEA

EZTABAIDA LAGUNTZEKO GALDERAK:

1. Geure burua zein pertsonaiarekin identifikatzen dugu?
2. Euskara Planari begira, nork egiten dio mesederik handiena?
3. Zerbait egin dezakegu guk besteen jokaeran eragiteko? Zer eta nola egingo genuke?
4. Euskararen erabilera handitzeko, nola eragin dezakegu Pellorengan?

4 LANTALDEA

EZTABAIDA LAGUNTZEKO GALDERAK:

1. Geure burua zein pertsonaiarekin identifikatzen dugu?
2. Euskara Planari begira, nork egiten dio mesederik handiena?
3. Zerbait egin dezakegu guk besteen jokaeran eragiteko? Zer eta nola egingo genuke?
4. Euskararen erabilera handitzeko, nola eragin dezakegu Idoiarengan?

Eranskinari buruzko oharrak:

Bi gidoi hauek, Euskara Batzordeetako kideek antzeztu eta grabatu zituzten. Laneko bi ohiko egoera dira, eta hiztun ezberdinen hizkuntza portaera ezberdinak jasotzen dira bertan.

Euskara Batzordeetako kideak formatzeko erabili genuen material hau 2007ko maiatzaren 18an egin ziren Fagor Ederlan Taldeko Euskara Batzordeen arteko topaketetako talde dinamikan.

2. ERANSKINA

TELP / ERAGILEAK HEZTEN

Euskara Batzordeen topaketan taldeka lantzen hasitakoari jarraipena eman eta han jasotako ondorioak sakontzeko helburuarekin, ariketa erako formazio saioak egingo ditugu Euskara Batzordeetan eta Arnasguneetan.

- Euskara Batzordeko kideentzako formazioa
Nork eman: teknikariok.
30 minutuko bi saio 2007an. (agian hirugarren bat praktikan jarritako jokaera berriak baloratzeko)
- Arnasguneetako erdigunekoentzako formazioa
Nork eman: teknikariok eta arnasguneetako EB-etako kideok.
30 minutuko bi saio 2007an. (agian hirugarren bat praktikan jarritako jokaera berriak baloratzeko)

FORMAZIO SAIOEN ESHEMA: (hartzaileak gora-behera, saioek eskema bera izango dute)

1. SAIOA: norbere ohiko hizkuntza jokabideen deskribapena egin
(1) iraupen laburreko egoeratan, Ederlanen bertan norberak bizi izandako egoerak deskribatu, eta egoera horretan norberak izandako jokaera. (*5na egoera pentsatu, eta 1 taldean azaldu. Esan normalean zein irtenbide ematen diegun egoerei, eta guztienak entzun ondoren, "zailenetik errazenera" ordenatu.*)
2. SAIOA:
 - o Emandako irtenbideek zein sentazio sortzen dute gudan? Nola uzten gaituzte?
 - o Zer egin sentazioa negatiboa bada sentazio horrekin ez geratzeko? Edo sentazioa positiboa bada indartzeko?
 - o Guztion artean, jokabide edo irtenbide posible "idealak" edo berriak zerrendatu. (asertibitatea,...)
 - o Jokabide berriak praktikan jarri
3. SAIOA: (hilabetera edo)
 - o Praktikan jarritako jokabide "idealen" edo berrien balorazioa egin. / jarri ditugu praktikan esandakoak? Nola sentitu gara? Eta zer lortu dugu? Lortu dugu euskaraz egitea?

- (1) Egoera batzuk hauek izan daitezke: (beste egoera batzuk formaziorako materialean ikusi)
- Bilerak a) informatiboak b) erabakitzaileak c) formazio bilerak
 - iraupen laburreko solasak (ez konfiantzazkoak); biltegira sartu-irtena, Ederlaneko harrera,...
 - iraupen laburreko solasak (konfiantzazkoak); bokadilo denbora, kafe denbora,...
 - iraupen luzeko solasak; bi lankideren arteko bileratxoak, ...

Oharra1: formazio saioak norbere esperientziak eta ohiko hizkuntza jarrerak aztertzeetik abiatuko dira, eta beti ere gure helburua euskaraz egitea dela argi izanda. Formazioaren helburua da eguneroko lanean eta hizkuntza gatazketan ditugun jarreraren inguruan hausnartu eta aurrera begirako portaera hobeto batzuk adostea(?) denon artean, eta hauek martxan jartzea, hau da, maila pertsonalean norberak egin beharreko lana da hau. Hala ere, bada beste plano bat landu beharrekoa eta taldean adostu(?) beharrekoa; nola jokatu behar dut EB-ko kide bezala? X egoeraren aurrean nola jokatu behar dugu? Zer / nola esan euskaraz egin ahal izanda egin ez edo egitea errazten ez duenari? Nola jokatu (zoriondu,...) egiten duenarekin? eta egiten ez duenarekin? ...

Oharra2: agian 1. eta 2. saioak bateratu.

Eranskinari buruzko oharra:


Aurrerago egingo diren beste formazio saio batzuen eskema da hau.

3.ERANSKINA**Mekanizatueta arnasgunea**

- Erantzun galdera hauei:

1. non kokatzen duzu zure burua?

- a) 1. zirkuluan
- b) 2. zirkuluan

**2. « nire hizkuntza ohiturak aldatu ditut »**

- a) Bulegoan lehen baino apur bat gehiago egiten dut euskaraz
- b) Bulegoan lehen baino askoz gehiago egiten dut euskaraz
- c) Bulegoan lehen bezala egiten dut euskaraz

3. « Pertsona batzuekin orain ezin dut gazteleraz hitz egin. Lehen bai. »

- a) Bai.
- b) Denekin egiten dut euskaraz eta gazteleraz.

4. Zein esaldirekin identifikatzen zara ?

- a) euskaraz hitz egiteko tira egin behar didate
- b) normalean nik egiten diet tira ingurukoei euskaraz egin dezaten
- c) batzuetan nik tira egiten dut, beste batzuetan niri tira egiten didate

5. « Bulegoan, orain duela 3 hilabete baino gehiago entzuten da euskara »


- a) bai
- b) tira !!
- c) antzera

6. Ados zaude ? « Bi ez dira haserretzen, batek nahi ez badu »**7. Ados zaude ? « Bik ezin dute euskaraz hitz egin, batek nahi ez badu »****8. Ados zaude ? « Bik euskaraz hitz egingo dute, biek benetan nahi badute »****9. « Hiru hilabete hauetan euskaraz gehiago egiteko konpromisoa bete dut »**

- a) Bai, baina ez nago oso pozik, gehiago egin dezaket
- b) Bai, eta pozik nago egindakoarekin
- c) Bai, eta ikusi dut nahi bada egin daitekeela

Eranskinari buruzko oharrak:

Bulegoko euskararen erabileraren diagnostikoa egin osteko lehen bilerako ariketa da hau. Aurrez teknikaria parte hartzaile bakoitzarekin egon zen proiektuaren helburuez informatu eta bakoitzak bere lankideekin ahozko konpromisoak har zitzan.

4. ERANSKINA**GURE BULEGOKO EUSKARAREN ARNASGUNEA****BAI / EZ**

- **ESAN BAI ALA EZ :**

1. Lanean euskaraz gehiago egin nahi dut
2. Euskaraz gehiago egiteko konpromisoa hartu dut nire buruarekin eta lankideekin
3. Euskaraz egiteko gogorarazi egin behar didate, laguntza behar dut, gaztelerara erraz pasatzen naiz.
4. Natural egiten dut euskaraz, berez ateratzen zait, ez dut ezer berezirik egin behar konpromiso hori betetzeko

- **3. galderari BAI erantzun badiozu,...**

- o Zer egin daiteke euskaraz gehiago egiteko konpromiso hori aktibatuta edukitzeko ? (DENON ARTEN ERANTZUN - Zerrendatu ekintza posibleak)

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

- o Zer egingo duzu zuk ?

1. _____

- **4. galderari BAI erantzun badiozu,...**

- o Zer egin daiteke euskaraz egitea zuri baino gehiago kostatzen zaienei laguntzeko ? (DENON ARTEAN ERANTZUN)

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

- o Zer egingo duzu zuk ?


1. _____

Eranskinari buruzko oharrak:

Arnasgunean bakoitza zein zirkulutan dagoen kontuan izanda, bakoitzak zein egiteko izango duen ikusten laguntzeko ariketa da hau. Bide batez, norbere konpromisoak gogorarazteko baliogarriak izan daitezkeen keinuak taldean aztertzea proposatzen da betan, ondoren hauek martxan jartzeko. Ariketaren lehen zatia bakarka egitekoa da eta bigarrena zirkulu bera konpartitzen dutenen artean.

5. ERANSKINA**INGENIARITZA BULEGOKO ARNASGUNEAK**

- **Irakurri esaldi hauek. Ados zaude esaten denarekin?**
(Zein esaldirekin identifikatzen zara?)



BAI / EZ

- 1 Beti edo ia beti egiten dut euskaraz euskal hiztunekin
- 2 Normalean nik egiten diet tira ingurukoei euskaraz egin dezaten
- 3 Ezagutzen ditut nire inguruko "euskaldun berriak" eta ikasten ari direnak
- 4 Nire inguruko "euskaldun berriekin" eta ikasten ari direnekin euskaraz egiten dut
- 5 Nigatik gehiago egingo nuke euskaraz, baina inguruak ez dit uzten
- 6 Bik ezin dute euskaraz hitz egin batek nahi ez badu
- 7 Euskaraz gero eta gehiago egiteko konprometituta nago; konpromisoa beti daukat presente
- 8 Batzuetan gazteleraz ere hitz egiten dut euskal hiztunekin
- 9 Hamarretik bost erdal hiztunak badira gazteleraz egitea normala da
- 10 Hamarretik bost euskal hiztunak badira euskaraz egitea normala da.
- 11 Euskalduna ez da euskaraz dakiena, euskaraz hitz egiten duena baizik
- 12 Momentu bakoitzean (bileretan, kafe makinan,..) euskaraz egiteko zein aukera dauden baloratzen dut.
- 13 Euskaraz lan egitea nire aukera da
- 14 Orokorrean, lehen baino gehiago egiten dut euskaraz
- 15 Negozioan euskara gehiago egin dadin, inportantea naiz
- 16 Euskaraz lan egitea nire eskubidea da
- 17 Euskaraz nik baino gutxiago dakitenei laguntzeko prest nago beti
- 18 Tartean erdaldunen bat badago, euskaraz egitea errespetu falta da
- 19 Erdal hiztunek ondo hartzen dute euskaldunok euskaraz egitea
- 20 Natural sentitzen dut egiten dudana, eta natural egiten dut sentitzen dudana.

- Identifikatu bulegotik kanpoko bost pertsona, zurekin lanean harreman handia dutenak. Nola lan egiten duzu bakoitzarekin? Zuen hizkuntza ohiturak aldatzeko zer egin dezakezu zuk?

1. _____

2. _____


3. _____

4. _____

5. _____

Ingeniaritzako ARNASGUNEAK

- Bilerara etorritakoak; Xabi, J.Sarri, Jesus.S, Ander, Mikel, Aitziber I, Pako, Nagore,Itsaso
- 2. ariketan, gutako bakoitza bulegotik kanpo ere ERAGILE izateko bidean,... hauek izan dira bakoitzak hautatu dituen gertuko pertsonak eurekin ERAGILE lanetan hasteko:
 - o Itsaso; Alberto R., Pablo C., Kontxi A., Eugenio M.
 - o Aitziber S.; Jose Luis
 - o Iñigo; Ander B
 - o Judith; Fidel A., Felix M., Eugenia, Gorka, Kontxi A.
 - o Xabi; Txus, Juan Ramon, Leire C, Sonia, Iñaki D.
 - o Sarri; G.Telleria, G.Leal, E.Esteve, P.Borja, Pili O.
 - o Nagore; Eugenio, Felix, Eugenio
 - o Aitziber I; Miguel Angel, Eugenia, Alberto D, Felix M, Rafa
 - o Jesus S.; Txomin L, Alfonso U, Eugenia, Angel M
 - o Ander; Alfredo, Antonio, Arregi, Carmelo, Plantako jendea
 - o Pako; (aipatu zenituen lankideak ez nituen jaso)
 - o Mikel; Iñaki T, Luis S, Eugenia, Fidel
 - o Maite; Alaia, Sergio, Esther L.
- Bilera egin eta egun batzuetara ptt. aurkezpena bidali zaie arnasguneko kideei emailez.
- Arnasgunea publiko eginda dago; bulegoko ohar taulan, berau, emailez ere bidali zaie bulegoko kide guztiei, 3.zirkulukoie ere bai.
- Egunero jartzen da "asteko hitza" bulegoan. Orain Nagorek du horren ardura baina ardura txandakatu egingo da.
- Geratu gara, hurrengo bileran (irailean) bakoitzak nori eragin adostu genuenez, baloratu egingo dugula nola ari diren euren lankideekin jokatzeko, ...aldaketarik sumatzen duten, zer egiten zaien zail, zer lortu duten,...
- Iraileko bilerarako beste gai posible bat; "batentzat euskara aukera eta eskubide izan dadin, beste norbaitentzat betebeharra izan behar da".



Eranskinari buruzko oharra:

Bulego honetan natural egiten da euskaraz, erdal elebakarrak gutxiengo dira. Ahozko eta idatzizko jardun informalarik dagokionez gunea trinkoa dela ikusita, arnasmugaren eragina gunetik kanpo zabaltzea erabaki zen. Faseei dagokienez, 3.fasean kokatuko litzateke arnasmuga hau.

6. ERANSKINA



**EUSKARA
BATZORDEA**

**Dakizunez, Esekiduran laneko
harremanetan euskara gero eta
gehiago erabili dadin lanean ari gara.
Hurrengoan iradokizun hau euskaraz
idaztera animatzen zaitugu.
Horretarako laguntzarik behar
bazenu eskatu lankideei edo euskara
dinamizatzaileari
(Ruben: ☎ 1686).
Eskerrik asko zure laguntzagatik!**



**EUSKARA
BATZORDEA**

**Esekidurako
Euskara Batzordetik
zoriondu egin nahi zaitugu
iradokizun hau euskaraz
idazteagatik.
Horrela bai, aurrera!!**

Eranskinari buruzko oharra:

Sentsibilizazio ekintza hau idatzizko helburuei loturik dago. Iradokizunak ez ezik, lan bonuak, arrisku potentzialak eta lan aginduak dira batez ere zuzeneko langileek sortu edo bete ohi dituzten idatzizko dokumentuak. Zuzenekoekin arnasguneetan batez ere ahozko helburuak lantzea pentsatua badugu ere, uste dugu idatzizko zenbait helburu ere landu daitezkeela. Goiko txartelak arnasguneetan parte hartzen dutenei ez ezik, euskal hiztun guztiei banatzen zaie iradokizunaren erantzunarekin batera.

7. ERANSKINA




asteko berbia



ADIERAZLEA

(INDICADOR)



asteko berbia



SASKIA



Eranskinari buruzko oharra:

Ezagutza lantzearekin loturiko ekintza da asteko hitzarena. Erabilera konpromisoak betetzeko laguntzatxo bat behar zela pentsatu zen laneko euskarazko terminologia erabiltzen hasteko.


8. ERANSKINA

Noiz ezagutuko dugu Evaristo euskalduna?

"Nik euskaraz hitz egiteko estudiantu egin beharko nuke.
Entzunda bakarrik ezin dut ikasi, eta gainera arazo bat dut.
Leku batean nagoen bakoitzean eta beste hamarrek euskaraz
hitz egiten dutenean segidan hasten dira gazteleraz. Horrelako
gauzak ditu jende itxi eta baztertzaile honek; ez dutenean nahi
beste batek euskaraz ikasterik, beti gazteleraz hasten dira!"

(Gatillazo taldeko Evaristo kantariari elkarrizketa /)
Argia / 2073.zenb.

"Nik ez dakit azkenean
Euskal Herri euskalduna
lortuko dugun, baina
nire burutik hasita
espazioak euskaraz betetzen
saiatzen naiz.
Edozein kasutan ere, hori delako
Egin dezakedana,
Egin nahi dudana
Eta niretzat zentzua duena".



Jon Sarasua

***Behin baten zien Peru eta Marixe.
Peruk bota eban puzkar handixe,
Marixek hartu eban susto handixe.
Ai, zelako ipuin txikixe!***

**Hiru gauza egin behar ditugu euskaraz:
SORTU, BALOREAK TRANSMITITU ETA GOZATU.**

Hizkuntzak eta xaboiak ez dute elkarren antzik;

Xaboa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gastatuago. Hizkuntza aldiz, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta aberatsago.

Abdetfattah Kilito (*idazlea*)

Garrantzitsua: Importante (adjetivo)

Garrantzitsua da euskara erabiltzearen alde egotea.
Es importante estar a favor de que se hable euskara.



Ezinbestekoa: Imprescindible (adjetivo)

Ezinbestekoa da euskara erabiltzearen alde daudela diotenek euskaraz egitea.
Es imprescindible que los que dicen estar a favor de que se hable euskara lo hablen.

Euskararen Oinarrizko Hiztegia

“DABILEN HARRIARI EZ ZAIO GOROLDIORIK BATZEN”

Euskara planean ere egonda ez da ezer lortzen, eginda bai.

Zer zara, dabilen harria ala dagoen harria?




Eranskinari buruzko oharrak:

Mahai gainetarako txarteltxoak

9. ERANSKINA

Ez gorde zure burua,



hitz egin EUSKARAZ!!

**EUSKARARIK
ONENA,
EGITEN DENA**

Eranskinari buruzko oharrak:

Ohar tauletarako kartelak.

10. ERANSKINA

Badator,... triki-traka, triki-traka
Orain han, eta gero hemen.
Orain harantz, eta gero honantz.

Zer moduz oporretako buelta?

Mezu honen bitartez, Bulego Orokorretako Euskara Batzordeko kideok, mintza taldeetan zabiltzaten guztiok agurtu nahi zaituztegu.

Munduan jende asko eta askok tren bakarra dauka.

Gu pribilegiatuak gara.

Pribilegiatuak zergatik? Ba, bi tren behintzat badauzkagulako.

Tren bat euskara da, eta bestea gaztelera.

Zuek ere, mintzalagunok, zorte handia daukazue, zuek ere bi behintzat badituzue eta.

Zuen kasuan euskara tren geldoa da,...eta gaztelera da tren azkarra.

Azkar joan nahi duzuenean gaztelera egiteko ohitura daukazue, baina gero eta gehiago euskararen trenera egiten duzue salto,... eta bistan da hau gero eta azkarrago doana.

Konturatu al zarete? Zenbat eta denbora gehiago joan euskararen trenean, orduan eta azkarrago doa hau.

Besterik ez, Euskara Batzordetik esan nahi dizuegu, euskararen bidaian, gu ere zuekin goazela. Jakina, EUSKARAZ.

Badator,... triki-traka, triki-traka
EUSKARAREN TRENA. (ez utzi pasatzen)

EGURREZKO TRENA

Trenik hartu behar badut
izan dadila egurrezkoa.

Izan dezala aurrean soka laburra eta
koloreak, bidaiari bakoitzeko bat,
adibidez gorria, adibidez berdea,
adibidez horia, adibidez morea.

Agurtu ditzala lurren estazioak,
igo daitezela elefante tronpa luzeak
leihoak zabaltu eta abisua eman dezaten
bagoazela alfonbraren zerumugarantz,
irrist egiten duen itsasoa hasten den lekurantz.



izan zeu zeure trenaren makinista!!

Eranskinari buruzko oharrak:

Email bidezko mezuak. Arnasguneetako zenbaitzuk mintza taldeetan ere hartzen dute parte.

11. ERANSKINA

ZERGATIK EZ EUSKARAZ BETE?

EZ INOREN ZAIN EGON. HASI ZEU!!!

ESEKIDURA

**IRADOKIZUNAK
EUSKARAZ**

URTARRILA

OTSAILA

METATUA

6/30

5/23

11/53

%20,75



< %25 Hobetzeko
aukera handia



Bagoaz goraka



%40-%50 >
ZORIONAK!!

**EgIN
zeUK Be
IRADOKIZUNA
EUSKARAZ!**

Eranskinari buruzko oharra:

Idatzizkoan eragitekoak.

